HAL
open science

Hizkuntz erlatibitatea espazio-markagailuen argitan: azken hogei urteetako ikerketen zenbait aitzinamendu

Michel Aurnague

To cite this version:

Michel Aurnague. Hizkuntz erlatibitatea espazio-markagailuen argitan: azken hogei urteetako ikerketen zenbait aitzinamendu. Gogoa, 2018, 18, pp.33-67. 10.1387/gogoa.20358 . hal-01950202

HAL Id: hal-01950202

https://hal.science/hal-01950202v1

Submitted on 29 Jul 2022

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Hizkuntz erlatibitatea espazio-markagailuen argitan: azken hogei urteetako ikerketen zenbait aitzinamendu

MIXEL AURNAGUE MIGUELGORRY

CLLE-ERSS (Université de Toulouse, CNRS, UT2J, Tolosa Okzitania)

& ILCLI (UPV/EHU, Donostia)

(Linguistic relativity in the light of spatial markers: some research advances of the last twenty years)

Laburpena

1940ko hamarkadaren hastapenean Whorfek azaldu, eta 1956an egilearen lan hautatuak argitaratu ostean (hil ondoko argitalpen gisa), «hizkuntz erlatibitate printzipioak» hainbat zorte ezagutu ditu. Hizkuntz erlatibitateari loturiko ideien eta haien aurrekarien ikusmira zabala eskainiz hasten da artikulu hau, ondotik kontrakoa den unibertsalismoaren jarrera aurkeztua delarik: azken hau hedatuena izan da ideien historian zehar eta hala dirau azken berrogeita hamar - hirurogei urteetan, zientzia kognitiboen sortze eta gailentzearen ondorioz. 1990eko hamarkadaren erditsuan, erlatibitatearen hipotesia nola argitua eta berrazaldua izan zen –hizkuntz erlatibitate berriztatuari bidea eginez– aipatzen da jarraian, baita esparru birmoldatu horretan obratu den ikerketa mordoa ere, espazio-semantikaren alorrean bereziki. Hizkuntz erlatibitatea eta unibertsalismoa bateratzen saiatzen den ikuspegi alternatiboa zehazten da azkenik, mintzaira eta gogamenaren arteko uztartze hobeagoa helburu duena.

Gako-hitzak: *hizkuntz erlatibitatea, unibertsalismoa, mintzaira, gogamena, prozesu kognitiboak, espazio-markagailuak.*

Abstract

Since its formulation by Whorf at the beginning of the 1940s and the posthumous publication of a selection of the author's writings in 1956, the "linguistic relativity principle" has known a variety of fortunes. This paper begins with a broad outline of linguistic relativity's ideas and their precursors, and follows by setting out the opposed point of view of universalism largely dominant in the history of ideas, included the last fifty-sixty years with the emergence and rise of cognitive sciences. The clarification of the initial relativist hypothesis and its subsequent reformulation as a revised linguistic relativity in the mid-1990s is then addressed, together with the large amount of work carried out in this renewed framework, in particular in the field of spatial semantics. The paper ends by presenting an alternative view that tries to reconcile linguistic relativity with universalism and to get a better articulation between language and thought.

Keywords: *linguistic relativity, universalism, language, thought, cognitive processes, spatial markers.*

1. Sarrera: mintzaira, gogamena, mundua… eta espazioa

Antzinarotik hona zenbatezinak dira mintzairaren eta gogamen edo pentsamenaren arteko harremanez egin diren hausnarketak. Gai korapilatsu honen hastapeneko bultzatzaileak filosofiaren eta gramatika/hizkuntzalaritzaren alorreko pentsalariak izan baziren ere, azpimarratzekoa da azken mende eta erdian antropologo eta psikologoek egin duten ekarpena.

Eztabaidaren muinean dagoen galderak balizko menpekotasun edo determinismoaz dihardu, nola determinismo horren norabideaz: gogamen independente edo aske baten ispilu hutsa ote dira mintzaira/lengoaia eta hizkuntzak (hortaz gogamen franko landua izan daiteke mintzairatik aparte) ala mintzairak du gogamena ahalbidetzen? Arakatzen den erlazioa bi elementu nagusitan oinarritzen den arren –mintzaira/lengoaia eta gogamena/pentsamena–, hirugarren aldagai bat gehitu behar zaie ezinbesteko bidaide gisa, hots, mundua/«errealitatea» eta horrekin batera doazen erreferentzia-ekintzak edo erreferentzia-prozesuak. Bestalde, mintzaira gizakien ekoizpen eta ahalmen nagusietako bat izanik, kultura eta kognizioaren inguruko ikerketei ere zuzenean lotzen zaie aipaturiko eztabaida.

Lan xume honek ez du, neholaz ere, mintzaira eta gogamenaren harremanez agertu diren iritzi guztien berri emateko asmorik, liburu bat baino gehiago beharrezkoak bailirateke, eta horrelako azterketa zabal bezain sakonak aparteko jakinduria galdeginen bailuke (guk behintzat ez duguna). Aitzitik, hogeigarren mendeko proposamen berezi batean arreta jarri nahi da, zeinek bazterrak guztiz harrotu baitzituen –hizkuntzalari, antropologo, filosofo eta psikologoen artean bereziki– eta mintzaira-gogamena bikotearen inguruko eztabaida zaharrak gori-gorira ekarri beste behin: Sapir-Whorf hipotesiaz edo «hizkuntz erlatibitate (printzipio)»az ari gara, noski. 1920-1930eko hamarkadetan mamitu arren, 1950etik goiti zabaldu zen bereziki Sapir-Whorf hipotesia, azken honen lan nagusien hil osteko argitalpenaren harira (Whorf 1956). Eztabaidak eztabaida, arrakasta zerbait lortu zuen ikuspuntu edo teoria honek 1960ko bukaera arte, itzalaldia etorri baitzitzaion orduan, kognitibismoa eta psikologia kognitiboaren garapenarekin batera eta, bereziki, kolore-izenei buruz Berlin & Kayk (1969) idatziriko liburu sonatuaren ondorioz. Alta, ia mende laurdeneko ahulaldiari, berpizte erakusgarria jarraikiko zitzaion 1990eko hamarkadaren erditik at, hizkuntz erlatibitate berriztatu edo moldatuari esker. Gumperz & Levisonen (1996) liburua har daiteke berpizte horren mugarri edo sortze-agiritzat, nahiz mugimendu honek zenbait urte zeramatzan egituratzen. Bizi eta ikerketen paradoxa gisa edo, psikologia kognitiboaren tresnez ausarki baliatuko da hizkuntz erlatibitate berriztatu hau bere hipotesien frogatzeko unean eta zernahi dira gaur egun arte arlo honetan ondu diren esperimentuak –aurreko ehorztearen tresna berpiztearen giltza bilakatzen da (!)–. Beste berezitasun nabari bezala, azpimarratzekoa da, baita ere, lehen, kolore-izen, sendi-erlazio edota botanika-sailetan (besteak beste) egin ziren frogatze-entseguak, hizkuntza, kultura eta kognizioaren arlo garrantzitsu baten inguruan egituratu direla (nagusiki) aldi honetan; hau da, espazioaren eta espazio-erlazioen adierazpenaren inguruan. Jakina denez, semantika-ikerketen arlo hau kasik jorratu gabe egon zen luzaz (denbora-aspektu-modua ez bezala) eta 1980ko hamarkadan ekin zioten hizkuntzalariek haren azterketa antolatu eta sistematikoari, hizkuntz erlatibitate berriztatua abiatu baino zenbait urte lehenago.

Lan honek hizkuntz erlatibitateaz egiten duen gainbegiratzea lau urrats nagusiz osatua da. Teoria horren erroak eta nondik norakoak laburbildu (2. atala) eta, haren kontrako ikuspegia, hau da, unibertsalismoa, aurkeztuko dugu (3. atala). Ondotik (4.

atala), 1990eko hamarkadan egituratu den hizkuntz erlatibitate berriztatuaren edo moldatuaren hipotesiez, metodoez eta tasunez ariko gara. Horrek, ildo indartsu honen zenbait ahulezia azpimarratzera eramanen gaitu (5. atala) eta guhauren ikusmoldearen azaltzera ere bai, zeinek unibertsalismo eta hizkuntz erlatibitatearen arteko zubiak eraikitzen baititu.

2. Kultur erlatibismotik hizkuntz erlatibitatera: whorfiar silogismoa

Hizkuntz erlatibitateak mintzaira eta gogamenaren harremanez dakarren ikuspegia unibertsalismoarena bezain zabaldua ez bada historian zehar, baditu, berak ere, aurrekari interesgarriak. Oso urrun joan gabe, Erdi Aroko itzultzaileek beren eguneroko jardueretan aurkitzen zituzten zailtasun eta oztopoak zernahi eztabaida sortu zuten hizkuntzen adiera-sistemen alderagarritasunaz (Kelly 1979). Gutaz hurbilago, famatuak dira Wilhelm von Humboldtek hizkuntzen tipologiaz eta egiturez idatzirikoak, honako esaldiak ongi islatzen duelarik gogamenak mintzair(ar)ekiko lukeen menpekotasuna: «[…] hizkuntza bakoitzak berekin dakar gizadiaren zati baten kontzeptu-fabrika eta irudikapen-era osoa»[1] (Humboldt 1836/1988: 60). Zenbait osagai unibertsal onartzen badie hizkuntzei (hortaz hizkuntzetatik at liratekeenak, gogamenean), mintzaira da zinezko gogamen eratu eta garatua ahalbidetzen duena Humboldten arabera, mintzairarik gabeko edo mintzaira aurreko gogamena aski bakuna litzatekeelarik (Vandeloise 2002: 19). Humboldten hizkuntzarekiko iritziak Herderren pentsamenduaren jarraipen gisa ikusten badituzte bat baino gehiagok, baliteke, Aarsleffek (1974, 1982, 1988) aurreratu bezala, germaniar iturrietatik bezainbat Frantzian eman ziren eztabaidetatik elikatu izana Potsdameko jakintsu handia (Gumperz & Levinson 1996: 4; Vandeloise 2002: 18). Condillacen eta frantses *ideologoen* ideiek Humboldtengan ukan zuketen eragina aipatzen du Aarsleffek (1982, 1988), lehenbizikoaren giza jakintzen gaineko saioaren bitartez bereziki (*Essai sur l'origine des connaissances humaines*, 1746) eta Humboldten Pariseko egonaldiaren denboran (1798-1801) josiriko harremanen ondorioz.[2] Horiek horrela, ez da dudarik mintzaira eta gogamenaren arteko erlazioak 18. mende erditsuko germaniar intelektualen kezka bihurtu zirela jada, 1757ko Berlineko Akademiaren saio-lehiaketaren gaiak argiki erakusten duen bezala (Gumperz & Levinson 1996: 1, 12-13): «Zer-nolako elkar eragin ukan dezakete herriaren iritziek mintzairarekiko eta mintzairak iritziekiko?»[3].

Hizkuntz erlatibitatearen aurrekari zuzen eta garrantzitsuenen artean dugu, nola ez, Franz Boas, Sapirren irakasle izanen zena. Westfalian sortua, fisikazko ikasketak egin zituen Boasek eta, doktoregoa lortu ondoan (uraren koloreaz), Baffin uharteetara jo zuen hango azterketa geografikoa egin nahiz –populazioen mugimenduak, merkataritza-bideak, ehiza, eta abar–. Baffineko egonaldiaren denboran inuiten bizian guztiz

---

[1] «[…] every language contains the whole conceptual fabric and mode of presentation of a portion of mankind» (Peter Heathek alemanetik itzulia).

[2] Jakina da, bestalde, Condillacen pentsamendua hertsiki lotua zela Lockeren obrari. Hortaz, *An essay concerning human understanding* (1689) lanak zuzeneko eragina izan zuen Condillacen giza jakintza eta gogamenari buruzko hausnarketetan. Aarsleff (1974) eta Vandeloiseren (2002) iritziz, hizkuntz erlatibismora eramanen zuten ideien lehenbiziko haziak Lockek erein zituzkeen.

[3] «Quelle est l'influence réciproque des opinions du peuple sur le langage et du langage sur les opinions ?». Lehiaketaren gaia frantsesez zabaldua izateak ez luke nehor harritu behar, Europako intelektual zein aristokrazia eta gorteetako kideek hizkuntza hau usu menperatzen baitzuten denbora haietan, dotorezia/jantzitasun seinaletzat zeukatelarik.

murgildu zen eta hortik etorri zitzaion giza kulturetan sakontzeko tirria. Handik laster, Ameriketako Estatu Batuetara emigratu zuen Boasek eta antropologiazko ikerketak hasi ere, alor hartan ariko baitzen zendu arte (Columbia unibertsitateko irakasle izanen zen berrogei urtez baino gehiago). Eboluzionismo antropologikoaren aurkari sutsua izanik,[4] **«kultur erlatibismoa»** deituko zena defendatu zuen behin eta berriz; hau da, kultura bakoitza bere aldagai eta testuinguru bereziaren arabera aztertu behar dela. Hortaz, kultura batek sistema bat osatzen du eta, germaniar ondorengoaz gain (ikus gorago), estrukturalismoaren zantzuak ere antzeman daitezke Boasen ikusmoldeetan.[5] Teoriaz aparte, antropologoen metodoetan eragin zuen Boasek, jendeen lekukotasunak/kontakizunak hobesten baitzituen eta lekukotasun/kontakizun horien transkripzioak hartzen baitzituen ikerketaren ezinbesteko oinarri gisa. Hurbiltze horrek hizkuntzaren garrantziaz jabetzera eraman zuen eta, ondorioz, giza kulturen premiazko elementutzat jo zuen –neholako erredukziorik gabe, ez baitzituen kulturak hizkuntz(et)ara mugatzen–. Puntu honetaz hauxe zioen (Boas 1911/1966: 59): «Etnologia munduko herrien bizian sortzen diren gertakari mentalak aztertzen dituen zientzia bezala ulertuz gero, giza mintzairak, bizi mentalaren adierazpen garrantzitsuenetarikoa [izanik], etnologiaren lan-eremuaren barne izan beharko luke berez»[6]. Pisu zinez handia ukan zuen Boasen irakaskuntzak Columbia unibertsitatean formatu ziren hainbat antropologorengan (hala nola, Ruth Benedict, Mellville Herkovits edota Margaret Meadengan), baina Edward Sapir izan zen segur aski hizkuntzari eta hizkuntzalaritzari loturiko gaiak gehien barnatuko zituena. Kultur erlatibismoaren ikuspegiaz baliatuz eta mintzairaren garrantzia etengabe azpimarratuz, hizkuntza bakoitzak sistema edo egitura (hetsi) bat osatzen zuela aldarrikatu zuen Sapirrek (ikus 5. oharra), berezko barne-logika oinarrian duena. Fonologia eta morfofonologia bezalako alderdi formalak esleitzeaz gain, munduaren irudikatze oso eta koherente bat dakar bere baitan horrelako sistemak Sapirren arabera. Ondorioz, egitura hertsigarria da hizkuntza (Sapir 1929: 209): «Gizakiak ez dira soilik mundu objektiboan bizi, ez eta ekintza sozialaren munduan soilik, usaian ulertzen den bezala, baina hizkuntza jakin baten menpeko dira, haien gizartearen adierazpen-tresna bilakatu dena»[7]. Hizkuntzaren «tiraniaz» ere mintzo da egilea bat baino gehiagotan, gogamenaren «molde» gisa ariko litzatekeena (Duranti 1997: 57; Vandeloise 2002: 20),[8] eta zenbait bide eta jardun asmatu behar ditu gizakiak uztar hartatik askatzeko, nola poesia/olerkia edo mitoak –poesiaz eta arteaz, oro har, interesgarriak dira Cassirerren pentsamenduarekin agertzen diren bat-egiteak–. Aurreko lerroek ez lukete, nolanahi ere, ezkutatu behar franko aldakorrak izan direla Sapirren ikusmoldeak denboran zehar, bai hizkuntzak osatzen

---

[4] Kulturen sailkatzera eramaten baitzuen, mendebaldeko kultura «garatuak» erreferente gisa hartuz askotan.

[5] Geroxeago aipatuko dugun hizkuntz erlatibitateak hizkuntza bakoitza alor hetsi baten gisa ikusten du gehienetan eta, alde horretatik, hizkuntz estrukturalismoaren kide dela erran daiteke. Mundu/errealitatearekiko erlazioa eta erreferentzia bigarren mailako gauzatzat dauzka, beti sistemaren menpe direnak.

[6] «If ethnology is understood as the science dealing with the mental phenomena of the life of the peoples of the world, human language, one of the most important manifestations of mental life, would seem to belong naturally to the field of work of ethnology».

[7] «Human beings do not live in the objective world alone, nor alone in the world of social activity as ordinarily understood, but are very much at the mercy of the particular language which has become the medium of expression for their society».

[8] Vandeloisek berak «hizkuntza-uztarri» esamoldea ('langue-carcan') erabiltzen du hizkuntz erlatibismoa aipatzean eta «hizkuntza-ispilu» (hots, hizkuntza gogamenaren ispilu; 'langue-reflet') unibertsalismoaz aritzean.

duen sistema/egituraren koherentziaz eta hertsigarritasunaz, baita mintzairak gogamenaren gainean izan dezakeen eraginaz ere (Duranti 1997: 57; Vandeloise 2002: 20).

Boasek zein Sapirrek ibilbide akademiko eredugarriak izan zituzten (Kalifornia eta Pennsylvaniako unibertsitateetatik iragan ondoren, Ottawara joan zen Sapir eta berantago Chicago eta Yalera), antropologia eta hizkuntzalaritzaren alderdi andana bat hunkiz beren obra oparoetan.[9] Alta bada, Benjamin Lee Whorfen izena atxiki du historiak hizkuntz erlatibitatearen teorizatzaile nagusi bezala. Jakina denez, kimika-ingeniaritzako heziketa jarraiki zuen Whorfek eta, ondotik, suteen prebentziorako ikuskatzaile-lanetan aritu zen aseguru-etxe batentzat. *Testamentu Zaharraz* eta haren interpretazioaz interesaturik, hebreera ikasten hasi zen eta hortik etorri zitzaion, geroxeago, gramatikan eta hizkuntzalaritzan sakontzeko gogoa, amerindiar hizkuntzen azterketari ere lotuko baitzitzaion.[10] 1928an, Sapirren ezagutza egin ondoan Yalen, ikasketa berriak hasi zituen unibertsitate hartan, hizkuntzalaritza eta antropologia arloetan. Boasek eta Sapirrek mintzaira eta gogamenaren arteko harremanez garaturiko ideiak bere egin zituen Whorfek, baita hedatu ere, «hizkuntz erlatibitatearen printzipioa» lehen aldikotz aipatuz pasarte famatu honetan:

> Hizkuntza-fenomenoak atzeko planokoak dira, zeinen kontzientziarik ez baitute hiztunek edo, gehienez, kontzientzia lausoa […] Hizkuntzaren eskema automatiko eta oharkabeko horiek ez dira gizaki guztientzat berdinak, baina hizkuntza bakoitzaren berariazko tasunak, eta hizkuntzaren alderdi formalizatua osatzen dute, edo haren «gramatika» […] Hortik ondorioztatzen da «hizkuntz erlatibitate printzipioa» deitu dudana, hitz informalez baitio gramatika guztiz desberdinen erabiltzaileak kanpotik bertsuak diren gertakarien behaketa eta ebaluazio desberdinen egitera bultzatuak direla haien gramatikengatik; ez dira hortaz baliokideak behatzaile gisa, baina munduaren ikuspegi nolabait desberdinetara iritsi behar dira.[11] (Whorf 1940a-b/1956: 221)

Hizkuntz erlatibitate printzipioak eta, orokorki, mintzaira ta gogamenaz Whorfek errandakoak, haren hiltzearen ondotik jasoko du oihartzun gehien, hainbat lan eta artikulu biltzen zituen hil ondoko liburu baten argitalpenari esker (Whorf 1956; John B. Carrollek argitaratzaile gisa atondua). Hizkuntz erlatibitate printzipioa biziki famatua bilakatuko da handik landa eta «Sapir-Whorf hipotesia» bezala ezagun eginen da gehienbat, 1954an Harry Hoijerrek hautaturiko izena erabiliz. Hizkuntz erlatibitate

---

[9] Biek ala biek lan itzela egin zuten Hego Amerikako jatorrizko nazioen kulturen eta hizkuntzen arakatzen. Ezagunak dira, adibidez, Sapirrek Kanadako hizkuntzen deskribapenari egin dion ekarpena (Ottawako egonaldiaren karietara, 'Geological Survey of Canada'ren antropologia sailaren buru zela, nootka eta Athabaskaneko hizkuntzak ikertu zituen, besteak beste) eta amerindiar hizkuntzen sailkapenaren inguruan egin ohar eta proposamenak (uto-azteka familia definituz).

[10] Yalen hasi aitzin (ikus beherago), franko ezagun bilakatu zen jadanik Whorf nahuatlez eta uto-azteka familiako hizkuntzez idatziriko zenbait lanengatik, bere kabuz eginak gehienbat.

[11] «The phenomena of language are background phenomena, of which the talkers are unaware or, at most, dimly aware […] These automatic, involuntary patterns of language are not the same for all men but are specific for each language and constitute the formalized side of the language, or its "grammar" […] From this fact proceeds what I have called the "linguistic relativity principle," which means, in informal terms, that users of markedly different grammars are pointed by their grammars toward different types of observations and different evaluations of externally similar acts of observations, and hence are not equivalent as observers, but must arrive at somewhat different views of the world».

printzipioaren azpian dagoen silogismoa –**whorfiar silogismoa**– honela azal daiteke Gumperz & Levinsonen (1996: 25) arabera:

(1) Hizkuntza desberdinek informazioen aldetik baliokideak ez diren semantika-irudikapen/errepresentazio sistemak erabiltzen dituzte (lexiko mailako kontzeptu desberdinak erabiltzen dituzte bederen);

(2) irudikapen semantikoek irudikapen kontzeptualen zenbait alderdi xedatzen dituzte;

ondorioz

(3) hizkuntza desberdinen erabiltzaileek irudikapen kontzeptual desberdinak erabiltzen dituzte.

1950-1960ko hamarkadetan hizkuntz erlatibitateak zabalkunde ederra ezagutu arren, kritika gogorrak ere etorriko zitzaizkion, eten edo beheraldi batera eramanen zutenak (ikus 3. atala). Halere, ez daiteke ahantzi behar Whorf bizirik zela jadanik eztabaida franko kartsuak sortu zirela haren lan eta proposamenen inguruan. Vandeloiseren (2002: 21) iritziz, zenbait gaizki-ulertu errotu dira Whorfek mintzaira eta gogamenaren arteko erlazioez zuen ikusmoldeaz: haren teoriaren muturreko bertsioa hobetsi da anitzetan, hainbat idazkitan mintzairatik kanpo osatuko litzatekeen gogamena aipatu eta arakatu zuelarik. Era berean, hopieraz egin zituen baiespenek (denbora eta espazioaz bereziki) zeresan handia eman zuten eta eztabaidagai jarraikitzen dute oraindik ere (Lee 1991; Malotki 1983). Aldekoen ala kontrakoen eskutik, azpimarratzekoa da gehiegikeria eta okerkeria mordo bat zabaldu dela hizkuntz erlatibitateaz. Nork ez du ezagutzen, adibidez, liburu edo eskuliburu batzuek oraindik jartzen dutena, hots, «eskimal»en hizkuntzak (egiaz yupik edo inuit-inupiaq adarretako hizkuntzek) ehunka hitz dituela elurraren izendatzeko?[12]

3. Irudikapen semantikoen unibertsaltasuna: anti-whorfiar silogismoa

Irudikapen edo errepresentazio semantikoen unibertsaltasuna defendatzen duten teoriak askoz ugariagoak izan dira, pentsamenduaren historian zehar, hizkuntza bakoitzari lotuak liratekeela baiesten duten ikuspegiak baino. Aristotelesen *Kategoriak*etatik Erdi Arora, Agustin Hiponakotik iraganez, oso ohikoa izan da gogamen/pentsamen autonomo edo askearen ideia eta, horrekin batera, giza mintzaira gogamen horren menpe litzatekeelako ustea. Errenazimentuaren osteko ekoizpenari so egiten bazaio, berriz, ez da dudarik Port-Royaleko Antoine Arnauld, Claude Lancelot eta Pierre Nicole bezalako jakintsuek gogamen eta hizkuntzarekiko hurbiltze unibertsala garatu zutela beren gramatika orokorrean (*Grammaire générale et raisonnée contenant les fondements de l'art de parler…* (1660), Lancelotek idatzia Arnaulden laguntzarekin)[13] nola logikan (*La logique ou l'art de penser* (1662), Arnauld eta

[12] Sapirrek zituen lehen aldiz aipatu «eskimo»ak elur moten edo egoeren izendatzeko lituzkeen lau hitzak eta Whorfek datu honi erreferentzia egin zion berantago, elurraren «zenbait hitzez» mintzatuz. Geroztik hasi zen inflazio moduko prozesu bat erreferentziatik erreferentziara, «eskimo»a elurraren izendatzeko ehunka hitzez hornituko zuena. Martinek (1986) erakutsi bezala, bi erro soilik dauzkate yupik eta inuit-inupiaq familiako hizkuntzek elurraz aritzeko, eta Sapirrek aipaturiko lau izenak hortik eratorriak dira.

[13] *Grammaire générale et raisonnée*ko hainbat zati euskaratu ditu Jesus Mari Larrazabalek *Gogoa* aldizkarian. Horren berri ukan nahi duenak *Gogoa* IV (1) (2004, lehenbiziko bertsioa) edo *Gogoa* 17 (2018, bertsio errebisatua) begira ditzake.

Nicolek idatzia). Arrazoia eta adimena dira bi obra horien muinean eta, hizkuntzen arteko aldeetatik at, logika unibertsal bat antzeman daitekeela diote egileek, gogamen edo pentsamenaren emaitza litzatekeena.

Hizkuntzen eta gogamenaren arteko harremanez unibertsalismoak dioena, **anti-whorfiar silogismo** batean laburbil daiteke Gumperz & Levinsonen (1996: 25) iritziz, adieran eta alderdi semantikoetan arreta jarriz beste behin:

(1') Hizkuntza desberdinek semantika-irudikapenen/errepresentazioen sistema bera erabiltzen dute;

(2') kontzeptu-irudikapen unibertsalek semantika-sistemak xedatzen dituzte, alabaina semantika-irudikapenen sistema eta kontzeptu-irudikapen proposizionala gauza bat eta bera dira (jatorrizko «gogamenaren lengoaia»);

ondorioz

(3') hizkuntza desberdinen erabiltzaileek kontzeptu-irudikapenen sistema bera erabiltzen dute.

XIX. mende bukaeratik goiti alor biziki garrantzitsua bilakatuko da psikologia gogamenaren eta mintzairaren arteko harremanen aztertzeko orduan. Mintzairaren eta beste zenbait giza ahalmenen garapenari interesatuko dira gero eta ikertzaile gehiago, garapenaren psikologiari bidea eginez. Jean Piaget izan da segur aski ikertzaile horietatik ezagunenetarikoa (haren obraren ikuspegi franko zehatzaren ukaiteko, ikus Larrazabal 2006). Psikologia genetikoa deituriko teoria proposatu zuen Piagetek, zeinetan gogamenaren garapena prozesu eraikitzaile edo konstruktibisten bidez lortzen baita. Ingurumenarekin elkarreraginez garatzen du haurrak bere gogamena, jaiotzean dituen ekintza-eskemetatik abiatuz. Hastapeneko ekintza-eskema horiekin bat egiten ez duten objektu eta egoerak aurkitzean (**asimila** ezinak direnak), eskema berriak eraikitzen saiatuko da haurra **moldatze** edo **akomodatze**aren bitartez. Hortaz, eskema gero eta gehiago, baita gero eta konplexuagoak ere, sortzen ariko da –garapenaren aldi eta haien barneko fase desberdinetan aitzinatu arau–. Ingurumenarekin elkarreragiteak ekintza fisikoak galdegiten ditu gehienbat, ez soilik lehenbiziko aldi sentsoriomotorrean, baina baita hari jarraikiko zaizkion beste aldi eta faseetan ere. Ekintza fisiko horiek garrantzi handikoak izanen dira, espazio-kontzeptuen osatzean eta bereganatzean bereziki. Piageten ustez (ikus, adibidez, Piaget & Inhelder 1948) espazioaren hiru sail edo atal menperatuz joaten da haurra, ordena honetan: espazio topologikoa (adib.: inklusioa, kontaktua), espazio proiektiboa (adib.: perspektibak, norabideak/orientazioak) eta, azkenik, espazio euklidearra (adib.: distantzia). Psikologia genetikoaren arabera, beraz, bere ingurumenean mugituz eta objektuekin elkarreraginez jabetzen da haurra espazio-kontzeptu nagusiez. Horrek ikuspegi guztiz unibertsalista dakar mintzaira eta gogamenaren arteko harremanei buruz, espazio-markagailuen jabekuntza (batez ere adposizioena) elkarrekintza fisikoen bidez ikasiriko kontzeptuetan oinarritzen baita –markagailu horien adiera finkatzerakoan–. Alabaina, piagetiar markoaren jarraikitzaile bat baino gehiago entseatu da frogatzen espazio-markagailuen jabekuntzak espazio fisikoan ikasitakoa segitzen duela, ordena berean (ikus ingelesarentzat eta frantsesarentzat hurrenez hurren: Johnston 1985; Piérart 1979).

1970-1980ko hamarkadetan, psikologia kognitiboak eta zientzia kognitiboak indarra hartzen zutelarik (ikus beherago), aldaketa sakonak gertatuko dira garapenaren psikologiaren alorrean, bai metodoen aldetik baita metodo horiek ekar ditzaketen

emaitzen aldetik ere. Begi-mugimenduen neurtzeko teknikak fintzearekin batera, protokolo esperimental berriak hedatuz doaz, hala nola «lehentasunezko begiradaren paradigma».[14] Horri esker, egun edo aste batzuk dituzten haurtxoentzat diseinaturiko esperimentuak asmatzen ahal dira, ikusmena (eta zenbait aldiz ukimena edo hautemate haptikoa) erabiltzen dutenak, neholako ibilaldirik gabe espazioan. Esperimentu horiek franko inarrosi dituzte Piageten teoriaren oinarriak, haur sortu berrien (eta, oro har, oso adin gutxikoen) kategorizatzeko ahalmena erakustera ematen baitute, ingurumenarekiko interakzio fisiko gutxirekin edo berdin gabe. Kontzeptu espazialen sailean erakutsi da, besteak beste, haur oso txikiek konfigurazio nahiko konplexuak bereiz ditzaketela (ordena bertikalean antolaturikoak, adibidez; ikus Antell & Caron 1985; Quinn 1994) eta entitateen egituraz, mugez edo berdin iraunkortasunaz jakintza biziki goiztiarra dutela (adib.: Spelke 1984; Streri & Spelke 1988). Lan multzo honek psikologia genetikoak aurretik proposaturiko jabekuntza-eredua ezbaian ezarri arren, ez du etenik eragiten ikuspegi unibertsalistarekin: aitzitik, kategorizazio eta adimenaren lehen urratsak goizago jarriz, alde oraindik handiagoa sortzen du gogamen eta mintzairaren artean.[15] Bestalde, haur sortu berrien (edo oso gazteen) inguruko egiaztapenek, jatorrizko vs ikasiriko jakintzen gaineko eztabaidak berpiztu eta ugaritu dituzte. Batzuek (adib.: Elizabeth Spelkek) jatorrizko jakintza-egiturez horniturik munduratuak garela diote. Beste batzuek, aldiz (adib.: Renée Baillargeonek; ikus Needham & Baillargeon 1993), hipotesi apalagoa aurreikusten dute, zeinetan jabekuntzarako prozesu hertsatuak soilik baikenekarzke jatorriz (ez jakintzak berak). Beste zenbait ikuspuntu eta proposamen daude tartean, eta eztabaida horietan sakondu nahi duenak Lécuyer (2001)n aurki lezake bilduma aberats bezain pedagogikoa.

1960tik goiti zabalduz joanen diren hizkuntzalaritza chomskyarrak eta zientzia kognitiboen alorrak muinean izanen dute oraintxe aipatu dugun jatorrizko eta ikasitakoaren arteko oposizioa. Horrez gain, informazioaren prozesaketari dedikatua den tresna gisa ikusten da gogoa (eta garuna), gizakiaren ondare genetikoak nolabait programatua. Testuinguru horretan, sekulako garrantzia ematen zaio arrazoia eta arrazoinamenduaren ikerketa zientifikoari, nola ikuspegi unibertsalistari. Hurbiltze honen adibide erakusgarrietako bat daiteke agian Jerry Fodorren (1975, 1983) obra, bai gogamenaren lengoaiaz erran duenarengatik ('language of thought' edo LOT, intentzio-jarrerei lotua, besteak beste), baita gogoaren egituraz eratu duen analisi modularrarengatik ere (modulu zentral edo nagusi baten beharra azpimarratuz bereziki). Zientzia kognitiboen hedapenak aitzineko hipotesi unibertsalista batzuen zehaztera edo berdin galdekatzera eraman badu ere (ikus, gorago, Piageten teoriari buruz errandakoa), anitzez zorrotzagoak izan dira, hedapen horren karietan, hizkuntz erlatibitateari zuzendu zaizkion kritikak. Horien artean Berlin & Kayren (1969) lana izan da, segur aski, Whorfen ideiak gehien inarrosi dituena, hizkuntz erlatibitatearen beheraldiari hasiera emanez. Jadanik erran dugun bezala, ordu arteko antropologo eta hizkuntzalariek jakintzaren zenbait arlo erabili zituzten, behin eta berriz, erlatibitatearen funts eta zimendua frogatu nahiz, hala nola sendi-erlazioak, landareen izenak eta sailkapenak

[14] Paradigma horretan, adibidez, estimulu bat –edo mota bereko estimulu multzo bat– aurkezken zaio behin eta berriz subjektu bati, nolabaiteko ohiturara iritsi arte. Orduan, estimulu desberdina erakusten zaio eta begirada-denboren neurketak subjektuak aldaketarik hauteman duen ala ez salatuko du (begirada luzeago batek aldaketa hautemana izan dela seinalatuko du, noski).

[15] Haurtxoen jakintza, edo bederen ahalmen, oso goiztiarrak agerian ezarri dituzten psikologo kognitibo hauek desadostasun nahiko handiak izanen dituzte, ondorioz, 1990eko hamarkadan egituratuko den hizkuntz erlatibitate berriztatuaren jarraikitzaileekin (ikus, adibidez, Hespos & Spelke 2007).

(botanika) edota kolore-izenak. Azken sail hori hautatu zuten, preseski, Berlin eta Kayk hizkuntz erlatibitatearen funtsaren probatzeko. Erlatibisten arabera, hizkuntzek koloreen izendatzeko darabiltzaten sailkapen-sistemak hain desberdinak izanik, ezin dezakete azpian neholako klasifikazio edo printzipio unibertsalik izan. Gauzak beste modu batera jarriz, gizakiok ikusmen-aparatu bera ukan arren, mota anitzeko kolore-izenen sistemetara heltzen dira hizkuntzak, bakoitza bere logika bereziarekin –hiztunen (koloreen) irudikatzeko modua nolabait hertsatzen duena (gurean, José Luis Álvarez Enparantza «Txillardegi»k (1967/1979: 394-395; 1972: 35-39) eman zuen hizkuntz erlatibitatearen berri koloreen gaia jorratuz)–. Berlin eta Kayk, **oinarrizko** kolore-izenen araketa sistematikoa egin zuten,[16] lehen aldikotz, mundu zabaleko hogei hizkuntzari begiratuz (hizkuntza-familia desberdinetakoak) eta protokolo zehatz bati jarraikiz: Munsellen (koloreen) atlaseko kolore-lagin aseenak/saturatuenak aurkezten zitzaizkien hiztunei, beren hizkuntzaren oinarrizko kolore-izenei zegozkien tindagaiez galdekatuak zirela.[17] Hauek izan ziren araketaren ondorio nagusiak: hiztunen erantzunak foku-kolore zehatz batzuen inguruan biltzen dira, delako hizkuntzek oinarrizko koloreen sailkapen-sistema unibertsal bat azpian dutelako seinale; oinarrizko koloreen izen multzoaren sortze eta hedapena, ordena zehatz batean egiten da, hizkuntza guztientzat bera dena (ikus beherago); azkenik, sistema unibertsal hau eta barnean dakartzan kategoriak gizakion ikusmen-aparatuaren eta hari lotuak diren prozesu neurofisiologikoen emaitza zuzenak dira (azken puntu honi buruz, ikus Kay & McDaniel 1978; McDaniel 1974).

1. irudian, Berlin & Kayk (1969: 4) beren emaitza eta ikuskatzeei esker eraiki zuten inplikazio-hierarkia agertzen da. Hierarkia unibertsal honen arabera, hizkuntza batek bi oinarrizko kolore-izen izatekotan soilik, zuria eta beltza bereiziko dituzte ezinbestean. Hastapeneko bereizketa hau heda daiteke, bistan dena, hirugarren kolore-izen bati lekua eginik, aldi honetan gorria denotatuko duena. Ikusten den moduan, hizkuntza baten oinarrizko kolore-izenen multzoa edo zerrenda, hierarkiaren eskuin aldera zabalduko da urratsez urrats. Hortik berehalako ondorio hau ateratzen da: hierarkiaren maila batean dagoen kolore-izen bat erabiltzen badu mintzaira batek, hitz horren ezkerrean agertzen diren oinarrizko kolore-izenak ere ukan beharko lituzke bere lexikoaren eremuan. Erran dugun bezala, sekulako oihartzuna izan zuen Berlin & Kayren liburuak –hizkuntz erlatibitatearen kaltetan– eta hainbat eztabaida, lan eta garapeni bidea ireki zien (horien artean, jadanik aipatu dugun Kay & MacDaniel 1978).

[16] Hauek dira, besteak beste, oinarrizko kolore-izenen sailetik kanpo gelditzen diren markagailuak, Berlin eta Kayren lanean: morfema bat baino gehiagoz osatuak diren hitzak (hau da, esanahia azpiko morfema batzuen eduki semantikotik eratorria duten kolore-izenak), kolore-kategoria baten azpimultzoa denotatzen duten izenak, objektu-multzo murriztu baten koloreari erreferentzia egiten diotenak…

[17] Zuzenean bilduriko datu horietaz gain, literaturak munduko beste hirurogeita hemezortzi hizkuntzari buruz zekarrena ere kontuan hartu zuten egileek.



1. irudia: oinarrizko kolore-izenen inplikazio-hierarkia (Berlin & Kay 1969: 4)[18]

Hurbiltze formal zein deskribatzaile, funtzionalista edota kognitiboetan, semantikaz diharduten azterketetan nola semantika eta sintaxiaren interfazeaz axolatzen direnetan, ez da dudarik semantika eta, oro har, hizkuntzalaritza garaikideak adieraren ikuspegi unibertsalista garatu dutela gehienbat (adib.: Jackendoff 1983, 1990, 1997; Langacker 1987, 1991; Levin & Pinker 1992; Levin & Rappaport Hovav 1995; Pinker 1989; Talmy 2000; Wierzbicka 1996). Ray Jackendoffen semantika kontzeptuala da, agian, joera horren erakusle ikusgarrienetarikoa. Joskera edo sintaxi mailako errepresentazioei ('Syntactic Structure' (SS) edo egitura sintaktikoen moduluan eraikitakoei) adiera bat esleitzeko unean, 'Conceptual Structure' (CS) edo egitura kontzeptualetatik harturiko errepresentazio «proposizionalak» erabiltzen dira marko horretan, eta egitura horien estatusak berak agerian ezartzen du egilearen ikusmolde unibertsalista gogamenarekiko. Alabaina, arrazoinamendu eta inferentzia asko CSren barnean edo inguruan egiten dira Jackendoffen (1983: 18-22) ustez, modulu hau kognizioaren beste hainbat modalitate eta ahalmenekin **zuzeneko** harremanetan delarik (adib.: entzumena, usaimena, emozioak, espazio-irudikapenak, ekintzak), nolabaiteko zubi-lana betez mintzairaren eta gogo/garunaren gainerako funtzioen artean (Jackendoff 1997: 41-46). Argi da, beraz, CSko semantika-egiturak ez direla hizkuntza berezi bati lotuak «mintzaira-ahalmenaren arkitekturan» eta hizkuntza guztiek **tresna bera** darabiltela adiera zehazte aldera.

Ikuspegi unibertsalistatik eginiko semantika-azterketek, kontzeptu eta nozio anitz unibertsaltzat jo dituzte, hizkuntza frankoren azpian daitezkeela uste baitute eta/edo kognizioaren elementu garrantzitsu bezala baitakuskite. Hauek dira, adibidez, Melissa Bowermanen (1996a: 422) iduriko, espazioaren adierazpenari buruzko lanetan unibertsal gisa aurkeztu diren hainbat nozio: bertikaltasuna ('verticality'), horizontaltasuna ('horizontality'), lekua ('place'), gunea edo eskualdea ('region'), inklusioa ('inclusion'), kontaktua ('contact'), eustea ('support'), grabitatea ('gravity'), lotura ('attachment'), dimentsiotasuna ('dimensionality'), distantzia ('distance'), mugimendua ('movement') eta joanbidea edo ibilbidea ('path').

4. Hizkuntz erlatibitate berriztatua edo moldatua

Zientzia kognitiboen hazkundeak hizkuntz erlatibitatearen bazterketa eragin zuen urte luzez –bereziki 1970 eta 1980ko hamarkadetan–, jadanik azpimarratu dugun bezala. Ikertzaile bakar batzuek jarraiki zuten, halere, markoaren hipotesiei eusten, Sapir eta Whorfen idazkiak berrirakurriz eta zabalduz, haiei buruzko interpretazio (ustez) okerrak

[18] Itzulpen bat ematekotan, hauexek lirateke, gaurko euskaran, implikazio-hierarkian agertzen diren ingeles kolore-izenen nolabaiteko baliokideak (maila bakoitzeko zerrendak ezkerretik eskuinera ematen dira hemen goitik behera baino): [zuri, beltz] < gorri < [berde, hori] < urdin < marroi/gaztainkara < [ubel/more, arrosa, laranja, gris]. Euskarazko kolore-izenez ikus Álvarez Enparantza (1967/1979, 1972).

zuzenduz, edota markoarekin bat egin zezaketen datu berriak bilatuz. Birgaitze-prozesu honen lehen fruituak 1992an etorri ziren John Lucy hizkuntzalari eta psikologo amerikarraren eskutik, bi liburu osagarri argitaratu baitzituen urte hartan hizkuntz erlatibitateaz. Teoriaren historia, nondik norakoak eta garapen-saioak argitzen zituen lehenbiziko liburuak (Lucy 1992a), gertatu ziren hainbat gaizki-ulertu eta probatze aldera zehatz zitezkeen ardatz enpirikoak ere azaltzen zituelarik (ikus beherago hizkuntz erlatibitate berriztatua). Bigarren liburuan (Lucy 1992b), berriz, ingelesari eta maia yucatecari (Mexiko) buruzko landa-lan baten emaitzak xeheki aurkeztu zituen Lucyk. Esperimentu batzuen bitartez erakustera eman zuen bi hizkuntza horietako zenbakizko markatze gramatikalak sailkatze-eragiketa/ataza batzuetan izan zezakeen eragina, ingeles eta yucatecaren hiztunak alderatuz.[19] Kasik denbora berean, eta aipatzen genuen birgaitzaren seinale, maia tzeltal (Mexiko) eta guugu yimithirr (Australia) hizkuntzetako orientazio/norabide-markagailuen sistemak aztertzen zituzten zenbait lan agertu ziren (Brown & Levinson 1993a, 1993b; Haviland 1993; Levinson 1992), sistema horien ondorio kognitiboak agerian jartzeko saiakera argiak zirenak hauek ere (ikus beherago). Dena den, Gumperz eta Levinsonek (1996) zuzenduriko *Rethinking linguistic relativity* liburu kolektiboa izan zen, gure ustez, hizkuntz erlatibitatearen zinezko berpiztearen mugarria ikertzaile askorentzat, dela hizkuntzalaritzan, antropologian edo psikologia kognitiboan.[20] Handik goiti, Nimegako Max Planck psikolinguistika institutua bilakatu zen hizkuntz erlatibitatearen inguruko ikerketen aurreguardia eta eragile nagusia, Stephen Levinson eta Melissa Bowerman bezalako ikertzaileek epe luzerako programak etengabe bultzatu baitzituzten instituzio horretatik. Programa berri horien berezitasunetariko bat izan da, dudarik gabe, espazioaren adierazpena ardatz hartzea hainbat eta hainbat hizkuntzatan, 1980ko hamarkadan egituratu zen semantikazko ikerketen sail garrantzitsu honen aitzinamenduez baliatuz edo.

Bowermanek (1996a) unibertsalismoari zuzenduriko bi kritika gogoratu nahi genituzke hemen. Jabekuntzaren arloari doakio lehenbizikoa eta, zehatzago, psikologiak zein psikologia kognitiboak anitzetan defendatu duten mintzairaren menpekotasunezko ikuspegiari (gogamenarekiko). Gopniken zenbait lanen emaitzetan oinarrituz bereziki (adib.: Gopnik 1980; Gopnik & Meltzoff 1986), grabitatea eta edukitzea bezalako kontzeptuak ez direla uste bezain goizik **osorik** menperatuak dio Bowermanek, haurtxoek hemezortzi edo berdin hogei hilabetetik goragoko epea behar dutelarik horien behar bezala bereganatzeko. Nola liteke, beraz, mintzaira gogamenean onduriko kontzeptuetan (soilik) oinarritzea espazio-markagailuen ikastean, beharrezko kontzeptuak ez badira guztiz osatuak haurtxoa markagailu horien erabiltzen hasten delarik? Ez ote daiteke zuzenago pentsatzea mintzairak ere parte hartzen duela zenbait kontzepturen jabekuntzan? Bowermanen bigarren kritikak hizkuntzen arteko aldeak nabarmentzen ditu, espazio-konfigurazio edo egoeren izendatzeko molde desberdinak

[19] Yucatecak «klasifikagailuak» erabiltzen ditu beste zenbait berezitasunen artean, zenbakizko markek determinatzen edo zenbatzen diren entitateen tasun ontologiko batzuk kontuan hartzen baitituzte, hala nola haien forma/egitura eta gaia. Horrek eta pluralaren erabilera aski murritzak ondorioak lituzkete –Lucyk bilduriko datuen arabera– ingelesaren eta yucatecaren hiztunek egiten dituzten hainbat eragiketa ez-linguistikotan. Klasifikagailuei buruz, ikus (Grinevald 2007).

[20] Liburuaren aitzinetik, izen bereko konferentzia bat iragan zen Jamaikan (1991n), zeinaren edukiak *Current Anthropology* aldizkariaren ale berezi batean bildu baitziren. 1996ko liburuak lehenbiziko argitalpen horren gai berezi batzuetan jartzen du arreta (adib.: mintzaira eta gogamenaren arteko interfazea; unibertsalak eta aldaketa hizkuntza eta kulturetan; interpretazioa kultura-testuinguruaren arabera; kultura, praxia eta diskurtsoa), haien inguruko eztabaidak sakonduz eta zabalduz.

gogora ekarriz. 2. irudian agertzen da Bowermanek hizkuntz aniztasunaren frogatze aldera erakutsi ohi zituen konfigurazioetatik zenbait (Bowerman 1996a: 394): 2a) mahai bat eta kikara bat (euste horizontalezko erlazioa); 2b) fruitu-ontzi bat eta sagar bat (inklusio/edukitzezko erlazioa); 2c) altzari-ate bat eta eskutoki bat (euste bertikalezko erlazioa). Ingelesak bi euste-konfigurazioak (2a, 2c) *on* preposizioaren bidez deskribatzen ditu eta *in* hartzen, aldiz, inklusio/edukitzearen (2b) markagailutzat. Finlandieraz inklusio/edukitzea (2b) eta euste bertikala (2c) batera tratatzen dira (*-ssa* kasu inesiboa erabiliz)[21] eta euste horizontalari (2a) beste molde batez zaio erreferentzia egiten (*-lla* kasu inesiboaz). Hirugarren bide bat hautatzen du oraindik nederlanderak, preposizio bana aplikatuz espazio-konfigurazio bakoitzari: *op* euste horizontalari (2a), *in* inklusio/edukitzeari (2b) eta *aan* (loturazko) euste bertikalari (2c).[22] Azkenik, gaztelania bezalako hizkuntza batek adposizio bakar baten bitartez (*en*) izenda ditzake irudiztaturiko hiru espazio-egoerak. Lau hizkuntza eta lau era espazio-erlazio mugiezkorren sailkatzeko orduan. Gogamenak aurretik onduriko kontzeptuek espazio-markagailuen adiera esleitzen badu –egoera fisikoen bereizteko irizpide berak eskainiz giza kognizio guztiari–, nola daiteke hizkuntzek horren alde handiak erakustea oinarrizko konfigurazio mugiezkorren desberdintzean edo batzean; hots, kategorien eratzean? Hau da, preseski, Bowermanek (1996a: 393-396) egiten duen galdera, 2. irudiko konfigurazioak eta hainbat hizkuntzatako datuak alderatuz (haien artean, aipatu ditugun ingelesa, finlandiera, nederlandera eta gaztelania).



2. irudia: hiru konfigurazio mugiezkor (Bowerman 1996a: 394)

Bowermanek hainbat esperimentu egin zituen hizkuntzen arteko alde horien arakatzeko, eta erakusteko azpian ziren kontzeptuak ez zirela gogamenak (soilik)

[21] Hortaz, edukitzeari dagokion kontrol mota (2b) eta 2c bezalako loturazko euste bertikalari dagokiona bertsuak lirateke finlandieraren espazio-sistemaren arabera (Bowerman 1996a: 393-395).

[22] *Op* preposizioak ez du soilik euste horizontala deskribatzen, baizik eta euste iraunkorra edo autonomoa ere bai, zeinetan entitate kokatu (lokalizatu) eta kokatzailetik (lokalizatzailetik) aparte ez baitu beste **ageriko** neholako elementuk eustean parte hartzen (Bowerman 1996b: 153-156). *Aan*en kasuan, ostera, «kanpoko» elementu baten eragina beharrezkoa da kokatu eta kokatzailearen arteko eustea/oreka lortzeko, eta elementu horren presentziak agerikoa izan behar du.

eskainitakoarekin bat etortzen. Oso ezagunak dira helburu honi jarraikiz ingeles eta koreeraren artean egin zituen alderaketak, Soonja Choi ikerketa kide zuela (adib.: Bowerman 1996a; Bowerman & Choi 1994; Choi & Bowerman 1991). Eragindako mugimenduen (hots, mugimendu ez-autonomoen) adierazpenari interesatu ziren, bereziki, Bowerman eta Choi (Bowerman 1996a; Bowerman & Choi 1994; ikus beherago). Ingelesa, «sateliteek egituraturiko» hizkuntza izanik ('satellite-framed language'; ikus Talmy 1985, 2000), ibilduraren «joanbidea» ('path') adposizio eta sateliteen bidez azaltzen ditu (Aurnague 2016). Koreera, aldiz, aditzetan oinarritzen da ibildura baten joanbidearen berri emateko eta, hortaz, «aditzek egituraturiko» ('verb-framed') hizkuntza litzateke. Bowermanen (1996a: 404-405) iritziz, desberdintasun tipologiko horren ondorio zuzena da eragindako mugimenduen joanbidea (edo, usuago, eragindako **espazio-konfigurazioaren aldaketa**)[23] preposizio batek adieraztea ingelesez –adib.: *in, on, up, out, off*– eta aditz batek koreeraz –adib.: *nehta* 'laxoki sartu', *kkocta* 'entitate luzea oinarri batean pausatu', *nohta* 'gainazal horizontal batean pausatu', *pwucita* 'bi entitate lauren gainazalak bildu'–. Horrez gain, koreeraren aditzek anitzez konfigurazio klase gehiago xedatzen dituzte ingelesezko preposizio eta sateliteek baino. *In* preposizioak adierazten duen inklusio/edukitzearen ondoan, adibidez, bi edukitze mota kontuan hartzen ditu koreerak: inklusio/edukitze laxoa (*nehta* eta *kkenayta* biltze- vs bereizte-aditzak) eta inklusio/edukitze hertsia (*kkita* eta *ppayta* biltze- vs bereizte-aditzak). Halaber, jantzi edo arropen soinean ezartzeko (vs soinetik kentzeko) ekintzei erreferentzia egitean, hainbat aditz dauzka koreerak, tartean diren gorputz-zatien araberakoak (*ssuta* '(jantzi bat) buruan ezarri', *ipta* '(jantzi bat) enborrean/soinean ezarri', *chata* '(jantzi bat) gerrian ezarri'… biltze-aditzen multzoan).

Ingeles eta koreeraz gain, nederlandera ere ikuskatu zuten Bowerman eta Choik 1990eko erdialdean aurkezturiko esperimentu batean (Bowerman 1996a: 408-419; Bowerman & Choi 1994). Hizkuntza bakoitzeko berrogei subjektuk parte hartu zuten esperimentuan –hamar helduk eta hogeita hamar haurrek–, hiru adin tarte hauek finkatuz haurrentzat: bi urte-bi urte eta bost hilabete (hamar haur); bi urte eta sei hilabete-bi urte eta hamaika hilabete (hamar haur); hiru urte-hiru urte eta bost hilabete (hamar haur). Hirurogeita hemeretzi biltze- edo bereizte-ekintza erakusten zitzaizkien subjektuei, ekintza bakoitzaren izendatzera gonbidatuak zirela. Irudiak edo filmak erakutsi baino, egiazko objektuak erabiltzen zituzten esperimentatzaileek, ekintzaren hastapena irudikatuz (soilik) eta honelako galderak subjektuari zuzenduz: «Zer egin behar nuke? Erran iezadazu zer egin (behar dudan)?» Ekintza multzo aski zabala prestatu zuten Bowerman eta Choik, bai agertzen ziren entitate moten aldetik, bai entitate horiek osatzen zituzten konfigurazio moten aldetik. Hauexek ziren subjektuei aurkezturiko biltze-ekintzetako batzuk: kutxa bat hetsi; bi bagoi, kako/mako baten bidez, lotu; bi lego pieza lotu; eraztun (handi zein txiki) bat haga baten inguruan ezarri; tapa bat kazola baten gainean ezarri; oinetakoak panpina bati jantzi; galtzazpikoak panpina bati jantzi; kasete bat bere kutxan sartu; lego piezak saski batean sartu… Esperimentu hau, ekintza desberdinen sailkatze-eragiketa edo ataza gisa ikus daitekeela dio Bowermanek (1996a:

[23] Bowerman eta Choik arakatzen dituzten aditzetako askok (eragindako ekintzetan) ez dute entitate kokatuaren neholako posizio-aldaketarik galdegiten **lurrak xedaturiko erreferentzia-markoan** eta, hortaz, **mugimendu hutsak** dira ('mouvement'/'movement') egiazko **«ibiltze» edo «ibildurak» baino** ('déplacement'/'displacement'). Postura-aldaketa aditzak, adibidez, ibildurarik gabeko mugimenduen barne dira, deskribatzen dituzten espazio-aldaketak entitate kokatuak definituriko esparruari mugatzen direlako. Nahiz «mugimendu» eta «higidura» hitz generikoak erabili, zinezko ibildurak –eta, zehatzago, «zentzu hertsiko ibildurak»– ikuskatu genituen (Aurnague 2016)n.

410), subjektuak estimulu bakoitzaren deskribatzeko erabiltzen duen markagailua/esaldia (aditz eta/edo preposizioa) kategoria baten identifikatzailea bailitzateke. Hortaz, markagailu berarekin edo bertsuarekin izendaturiko ekintzak antzekoagoak daitezke markagailu desberdinen bitartez izendaturikoak baino, eta multzo berean doazke. Printzipio honi jarraikiz eta biltze- vs bereizte-ekintzak aparte jarriz, analisi multidimentsionala aplikatu zitzaien hiru hizkuntzetako emaitzei, estimuluak hainbat kategoria edo multzotan banatuz (multzo batek izendatze moduaren arabera parekoenak ziren ekintzak biltzen zituen; ikus gorago). Hizkuntza bakoitzaren (biltze vs bereizte) «mapak» edo ekintza-sailkapenak eratu ondoan, edozein subjektu edo subjektu multzoren emaitzak hizkuntza horren tasunekin aldera zitezkeen. Azterketa multidimentsional honi esker eta, bereziki, adin desberdinetako parte-hartzaileen artean egin ziren alderaketei esker, hona Bowerman eta Choik atera zuten ondorio nagusia (Bowerman 1996a: 415): «Oro har, input [edo sarrerako] hizkuntzaren eragina aski sendoa da: azterketa estatistikoak erakusten du hiru hizkuntzetan, adin txikiena zuten haurren taldeak egin zuen espazio-ekintzen sailkapenak antz handiagoa duela hizkuntza *bereko* hiztun *helduen* sailkapenarekin *beste* hizkuntza bat ikasten zuten *adin bereko* haurrenarekin baino»[24]. Haurtxoak, hizkuntza bakoitzeko espazio-markagailuez jabetzeko unean, gogamenak aitzinetik –eta modu askean (hots, mintzairaren eraginetik kanpo)– eraturiko kontzeptuetan oinarritzen balira, nola daiteke haien (espazio-ekintzen) kategorizazio-erak parekotasun gehiago izatea hizkuntza bereko helduen kategorizazioekiko, ezen eta beste hizkuntza bateko haurren sailkapenekiko?

Hurbilak izanagatik, haurren sailkapenak ez dira guztiz bat etortzen hizkuntza bereko helduen kategorizazioekin, jabekuntza-prozesua ez baita bururatua eta zenbait «huts» gerta daitezkeelako oraindik espazio-markagailuen erabileretan, hala nola «gainhedatzea» ('overextension') edo «azpihedatzea» ('underextension'). Bowermanek (1996a) azpimarratu bezala, baliteke zenbait erabilera okerren atzean (bereziki gainhedatze edo gainsortze kasuetan) gogamenak eskainiriko kontzeptuen esku-hartzea antzematea. Gisa honetako egiaztapenek, hizkuntz erlatibitate berriztatu edo moldatu baten zehaztera eraman zuten, zeinek, gogamenak osaturiko kontzeptuen papera onartzearekin batera, leku berezi bat aldarrikatzen baitu mintzairarentzat –gogamenarekiko menpekotasunetik at–.[25] Bowermanen (1996a: 398) hitz hauek gogora daitezke ikuspegi teoriko honen adibide gisa: «Espazioaz mintzatzen ikastean, hautemate eta ekintzetan oinarritua den espazio-egoeren ulermena beharrezkoa bada hain segur, ez ditu, jakintza horrek soilik, haurrak askatzen beren hizkuntzek espazioaren *klasifikatzeko* dituzten eren ikastetik […] Hizkuntzaren araberakoak diren [kategorizazio] erabaki horien hartzeko, ezinbestekoa da espazio-hitzen [markagailuen]

[24] «Overall, the influence of the imput language is quite strong: statistical analysis shows that in all three languages, the youngest age group of children classified the spatial actions more similarly to *adult* speakers of their *own* language than to *same-age children* learning *other* languages».

[25] Objektibitate osoz egia da «unibertsalismo berriztatu»tzat ere har daitekeela jarrera hau, alderdi unibertsal zein erlatiboen eraginak batera onesten bide baititu (eskerrak Kepa Korta lankideari iruzkin honentzat). Haatik, bi arrazoi nagusi daude erlatibitate berriztatu gisa aipatzeko: hizkuntz erlatibismoaren aldekoek mamituriko ikuspuntua da, unibertsaltasunari leku zerbait eginez hizkuntza-prozesuetan eta sisteman (unibertsalista gehienak, aitzitik, ez dira jarreraz aldatu); unibertsaltasunaren papera onetsiz ere, erlatibitate aski agerikoa/sakona defendatu dute proposamen honen bultzatzaileek, Max Planckeko «eskola» deitzen duguna barne (hortaz, ikus 5. atalean Gumperz eta Levinsonek diotena erlatibitate eta unibertsalismoa zinez ezkont ditzakeen aterabideaz).

testuinguruen arteko distribuzioa esleitzen duen eskema inplizitua atzematea»[26]. Nimegako Max Planck psikolinguistika institutuaren giroan garatu eta errotu zen jarrera hau, John Lucyren (1992a, 1992b) proposamenen jarraipentzat ikus daiteke. Alabaina, ikertzaile honek ez zuen norabide **bakarreko** kausalitaterik ikusten Whorfek gogamen/kultura eta mintzairaz idatziriko lanetan eta, gogamen aske edo autonomo baten existentzia baietsi ondoan, elementu horien elkarreragina aztertu behar zela zioen (hori bai, mintzairak gogamenean izan zezakeen eraginean zentratzen zelarik). Marko teorikoa ez ezik, metodologia eta ikerketen oinarri enpirikoak ere gaurkotzen ibili da hizkuntz erlatibitate berriztatua. Jarraiki dituen ildo enpirikoetatik hiru ikusi ditugu jadanik, teoriaren hipotesien egiaztatze sendoagoa bilatzen dutenak: hizkuntza (eta kultura) sorta bati begiratzea; hizkuntzek azpian dituzten kategoriak eta haiek gogamenean izan dezaketen eragina zehazki neurtzea (hizkuntza-jardueretan zein hizkuntzatik harago ere; ikus beherago), psikolinguistikaren eta psikologia kognitiboaren metodo eta tresnetara joz bereziki; markagailu bakanak baino, hizkuntzetako adiera eremu osoak –eta haiei dagozkien sistema gramatikalak– arakatzea, espazio edo denboraren alorrek xedatzen dituztenak, konparazione.

Bowerman eta Choirena bezalako esperimentuek mintzairak eraturiko kontzeptuen berezitasuna frogatu nahi dute, gogamenak soilik eskaintzen dituen kategoriei mugatu ezin daitezkeelarik. Haatik, alderdi gehiago dauzka hizkuntz erlatibitate berriztatu edo moldatuak, gogamen/pentsamenaren izate askea onarturik ere mintzairak gogamenean izan ditzakeen zenbait ondorio aurreikusten baititu (mintzairatik at doazenak). Ikerketa-programa berriaren barne izanen da, beraz, hizkuntzek onduriko zenbait kontzeptuk gizakien jarduera ez-linguistikoetan ukan dezaketen eragina ikuskatzea. Ildo horretatik doaz John Lucyk (1992b) ingeles eta maia yucatecaren hiztunekin egin zituen esperimentuak eta, horien artean, aztertu zituen sailkatze-eragiketak edo atazak (ikus gorago). Baina zenbait hizkuntzetako orientazio/norabide-markagailuei buruz eginiko ikerketak izan dira, dudarik gabe, ikusgarritasun gehien jaso dutenak arlo honetan. Bereziki aipatzekoak dira Havilandek (1993) eta Brown & Levinsonek (Brown & Levinson 1993a, 1993b; Levinson 1996) ezagutzera eman zituzten emaitzak, guugu yimithirr eta maia tzeltalari buruz, hurrenez hurren.[27] Ozeaniako eta Amerikako beste hizkuntza batzuek bezala, orientazio-markagailuen sistema berezia dute guugu yimithirr eta tzeltalak, zeinetan paper oso garrantzitsua jotzen baitu orientazio-sistema «absolutua» deritzanak. Mendebaldeko hizkuntza gehienek orientazio-sistema «erlatiboa» (egozentratua) edo «intrintsekoa» erabiltzen badute **eremu murritzeko** espazio-konfigurazioen deskribatzean (adib.: *The bottle is* ***to the left*** *of the chair* 'Botila aulkiaren **ezkerrean** da'), puntu kardinalen gisako koordenatuetan oinarritzen dira guugu yimithirr eta tzeltalaren hiztunak ber egoeren aipatzeko unean (botila aulkiaren **iparraldean** aurkitzen dela azalduz, adibidez).[28] Guugu yimithirraren

[26] «A perceptual or action-based understanding of what is going on in given spatial situations is probably a necessary condition for learning to talk about space, but this knowledge alone does not buy children knowledge of how to *classify* space in their language […] To be able to make these decisions in a language-appropriate way, it is essential to discover the implicit patterning in how spatial words are distributed across contexts».

[27] Guugu yimithirra Australiako aborigenen hizkuntzetatik bat da, Queensland iparraldean mintzatua (Havilandez aparte, Levinsonek (1992) ere idatzi zuen gai berari buruz). Bestalde, Brown eta Levinsonek ikertu zuten maia tzeltal mota (Mexiko, Chiapas), Tenejapa aldeko indiar komunitateek erabilitakoa da.

[28] Orientazio- edo norabide-sistemak «erreferentzia-markoak» dira Levinsonentzat (1996), hiru marko mota bereizten dituelarik: intrintsekoa, erlatiboa eta absolutua. Erreferentzia-marko intrintsekoak, bi elementu baizik ez ditu eskatzen: entitate kokatua eta entitate kokatzailea, zeinek baitu

orientazio/norabide-markagailu absolutuek lau puntu kardinalak desberdintzen dituzte, gutxi gorabehera: iparra, hegoa, ekialdea eta mendebaldea. Tzeltalak ere ipar-hego ardatzaren baliokide bat erabiltzen du (iparra=mendian behera; hegoa=mendian gora), nola zeharkako ardatzaren identifikatzaile bat, baina ez du azken honetako bi norabideen (ekialdea eta mendebaldea) bereizteko ahalmenik.

Hurbilagotik begira diezaiegun, bada, Brown eta Levinsonek tzeltal eta nederlanderaren hiztunen artean eginiko zenbait esperimenturen emaitzei (Brown & Levinson 1993b; Levinson 1996). Bederen hogeita bost –adin eta sexu desberdineko– kidez osaturiko tenejapar taldeak parte hartu zuen esperimentu horietan, beste hogeita hemeretzi lagunez (bederen) osaturiko nederlanderazko hiztunen taldeari ataza berak aurkezten zitzaizkiola, alderaketa puntu gisa edo (lehenbiziko taldearen egitura bertsua zuen bigarren talde honek adin- eta sexu-aldagaiei zegokienez).[29] Brown eta Levinsonek asmatu zituzten esperimentuen sortatik hiru aipatuko ditugu hemen, eragiketa eta ahalmen mota desberdinak azpian hartzen dituztenak: oroitze-atazak/eragiketak (berreskuratze- edo berdeitze-oroimena lantzen dutenak), ezagutze-atazak/eragiketak (ezagutze-oroimena lantzen dutenak), inferentzia trantsitiboetan oinarrituriko atazak/eragiketak. Honelako protokoloa ondu zuten Brown eta Levinsonek: subjektua mahai baten aitzinean zela (1 mahaia), entitate bat edo gehiagoz (adib.: miniaturazko abere modeloak, kartak, hiru dimentsioko forma geometrikoak) eginiko espazio-konfigurazioa aurkezten zitzaion –mahai horretan–, denbora baten buruan kentzen zena. Lehen mahaiaren parean zegoen bigarren mahai baten aldera (2 mahaia) itzularazten zen orduan subjektua –ehun eta laurogei graduko norabide-aldaketa eginez–, esperimentu motak galdegiten zuen eragiketa edo atazaren burutzera gonbidatzen zelarik –mahai "berrian"–:[30] aitzineko konfigurazioa berrosatu (ber entitateekin: miniaturazko abere modeloak), ezagutu (hainbat proposamenen artean: kartak)… Doi bat konplexuagoa zen inferentzietan oinarrituriko eragiketen/atazen protokoloa, inferentziaren premisa gisa ziharduten bi konfigurazioak mahai banatan erakutsi ondoan (1 eta 2 mahaiak; hiru dimentsioko forma geometrikoak), hastapeneko mahaian kokatzen baitzen subjektua (1 mahaia), premisen ondorioa hor azalduz (forma geometriko bat beste baten ondoan kokatu behar zuen, aitzineko egitura edo premisekin bateragarria zen era batean, haren iduriko bederen).

---

orientazio/norabide-sistema definitzen (bere egitura eta tasun intrintsekoen bidez). Erreferentzia-marko erlatiboak, aldiz, hiru elementuren beharra dauka gehienetan, kanpoko elementu batek (eskuarki gizaki batek) bere «ikuspuntua» jartzen baitio entitate kokatzaileari –batez ere, orientazio-sistema propiorik ez duenean–. Levinsonek marko absolutua bi entitatetan –hots, entitate kokatu eta kokatzailean– soilik oinarritua dela dioen arren, hiru elementuren inguruan eratua dela ere baiets daiteke, **ingurumenak** finkaturiko orientazio/norabide-sistema absolutua **aplikatzen** baitzaio entitate kokatzaileari. Ondorioz, erreferentzia-marko erlatiboa zein absolutua sistema kontestual gisa har daitezke (egoerak edo testuinguruak ekartzen baitu entitate kokatzaileari aplikatzen zaion orientazio-sistema). Orientazio/norabide-sistemen azterketaz eta sailkapenaz, ikus, baita ere, Claude Vandeloiseren (1986) lana.

[29] Ingelesa eta mendebaldeko beste hizkuntza gehienak bezala (ikus gorago), hiztunarengan zentraturiko koordenatu-sistema erlatiboan oinarritzen da maizenik nederlandera orientazio/norabide-markagailuen erabiltzean, eremu murritzeko espazio-deskribapenetan behintzat.

[30] Ehun eta laurogei graduko norabide-aldaketa ez zen, bistan dena, nolanahika hautatua izan, baizik eta eragin zuzena ukan zezakeelako orientazio-sistema absolutuaren arabera eraikitako espazio-konfigurazioetan, sistema erlatibo edo egozentratuan ez bezala. Zehaztu behar da, bestalde, kontsignak hitzezkoak izan arren, eragiketa edo ekintza ez-linguistikoak aipatzen zituztela, **era ahal bezain neutroan** (espazio-informazioen aldetik bereziki). Kontsignaren **edukiak** ez zukeen, printzipioz, ondorio **zuzenik** ukan behar subjektuek hauta zitzaketen erreferentzia-markoetan.

Hiru esperimentuek bi subjektu multzoen arteko alde nabarmena azaleratu zuten: nederlanderazko hiztunak erreferentzia-marko erlatiboan oinarritzen badira aurkezten zaizkien espazio-konfigurazioen kodetzeko (modu ia sistematikoan), erreferentzia-marko absolutura jotzen dute gehienbat tenejaparrek egoera beretan.[31] Beste era batez erranik, beren hizkuntzetan nagusiki agertzen zen orientazio-sistema erabili zuten subjektuek hainbat eragiketa edo ataza ez-linguistikoren egiteko. Gainera, «ber [orientazio] ereduak dirau ahalmen psikologiko desberdinetan zehar: espazio-egituren oroitzeko ahalmenean, aitzinetik ikusi zenaren ezagutzeko ahalmenean, eta espazio-egituretatik inferentzien egitekoan»[32] (Levinson 1996: 122-123). Erran gabe doa oihartzun handikoak izan zirela Brown eta Levinsonek maia tzeltalaren erreferentzia-markoez egin zituzten azterketak, lehenbizikoetakoak izan baitziren, Lucy eta Havilandekin batera, mintzairak sorturiko kategoria semantikoek kognizioaren beste modalitate batzuetan izan zitzaketen eragina artoski neurtzen. Hizkuntz erlatibitatearen hipotesiak mugatu eta doitu arren (hizkuntz erlatibitate berriztatu/moldatu bat bideratuz), jatorrizko teoria baino urrunago joan da, hortaz, Max Planckeko «eskola», psikologia kognitiboaren tresnez baliaturik ordu arte zalantzazkoak ziren fenomeno eta galderak zilegitasun berri batez jantzi baitituzte.

5. Hizkuntz erlatibitatearen erlatibizatzerantz

Atal honen hatsarrean espazioari buruzko euskararen zenbait datu aipatuko ditugu, hizkuntz erlatibitatearen inguruko hausnarketak nola argi ditzaketen azpimarratuz. Horren bitartez, erakutsi nahi genuke hizkuntzaren deskribapen edo/eta formalizazio zehatzak ere eztabaidan kontuan hartzekoak direla, psikologia kognitiboaren eta psikolinguistikaren alorrean eginak diren esperimentuekin batera.

Duela hogei bat urte (Aurnague 1999; 2004: 117-141), corpus batean oinarrituz, euskarazko *-n* inesiboaren espazio-erabileren azterketa sakona egiten entseatu ginen (guk eraiki edo bat-batean bilduriko zenbait adibide gehigarriz osatu genuen hastapeneko corpus nagusi hau). XVII. mendetik XX. mendera arteko lau obra burutik buru ikuskatu genituen helburu horrekin: Pedro Axularren *Gero* (1643), Jean-Pierre Duvoisinen *Laborantzako liburua* (1858), Frantzisko Laphitzen *Bi saindu heskualdunen bizia* (1867) eta Jon Miranderen *Haur besoetakoa* (1970). Liburu horietan agertzen ziren inesiboaren espazio-interpretazioak bi multzo nagusitan sailkatuak izan ziren, beren egitura morfosintaktikoen arabera. Lehenbiziko multzoan inesiboaren «zuzeneko» erabilerak bildu ziren; hau da, entitate kokatzailearen (lokalizatzailearen) izen edo izen-sintagmari inesiboa zuzenean eransten zaion kasuak (adib.: I_{kkt}-Det I_{kktz}-(Det)-Ines

[31] Brown eta Levinsonek onartu bezala, tenejaparrak ez ziren nederlanderazko hiztunak bezain sistematikoak izan beren hizkuntzan nagusia den erreferentzia-markoa hautatzerakoan. Haien arabera, bi lirateke (bereziki) ez-sistematikotasun hori eragiten duten faktoreak: tenejapar askok erabiltzen zen materialarekin eta jarraikitzen ziren prozedurekin zuketen ohiturarik eza (eskolatuak eta alfabetatuak ez zirenez, egiteko molde horiek franko arrotz zekizkiekeen); tzeltalaren orientazio-sistema absolutuaren berezitasuna, zeinen bigarren ardatzaren («zeharkako» ardatzaren) izendatzeak ez baitu bi norabideen arteko desberdinketarik egiten (ikus gorago). Egileek diotenez, ez da ustekabe bat «huts» eta inkontsistentzia gehienak ekialde-mendebalde ardatz honek egituratzen dituen konfigurazioetan gertatu baziren (hiru esperimentuetan).

[32] «The same pattern holds across different psychological faculties: the ability to recall spatial arrays, to recognize those one has seen before, and to make inferences from spatial arrays».

$A_{mugiezk}$; *Liburua armairuan da*).[33] Eskuarki berehalakoa zen inesiboaren esanahia adibide horietan, eta deskribapenak denotatzen zuen espazio-konfigurazioak ez zuen hizkuntza-markagailu gehiagorik eskatzen. Entitate kokatzailearen izen edo izen-sintagmaren eta inesiboaren artean, postposizio edo Barne Lokalizazio Izen (BLI; Aurnague 2004: 85-114) bat tartekatzen zuten esaldiak lehenbiziko joskeretatik apartatuak izan ziren (adib.: I_{kkt}-Det I_{kktz}(-Det-Gen) BLI-Det-Ines $A_{mugiezk}$; *Liburua armairu(aren) azpian da*). Pleonastikoa ez denean, bi arrazoi nagusirentzat tarteka daiteke BLI bat perpausean: inesiboaren zuzeneko erabilera iradokitzen duen espazio-konfigurazioa deskribatu nahi denarekin bat etortzen ez delako edo zuzeneko erabilera hau ulertzeko zaila (berdin ulergaitza) agertzen delako.

Corpus osoan egin genuen azterketatik (guhaurek aurkituriko adibideak barne)[34] inesiboaren espazio-erabilerek hiru konfigurazio mota adieraz zitzaketela ondorioztatu genuen eta baita konfigurazio klase bakoitza xedatu ere. **Inklusio edo edukitzezko** espazio-erlazioak ditu lehen-lehenik denotatzen inesiboak. Entitate kokatua (lokalizatua) mota desberdinetako «barneetan» izan daiteke, «barne klasikoak» –hau da, berez (funtzionalki) edukitzeko eginak diren barneak (Vandeloise 1986; Vieu 1991)– direlarik kokatzaile hoberenak edo behintzat ohikoenak. Objektuek eta «entitate mistoek» (eraikinek) dituzte gehienetan holako barne funtzionalak definitzen (adib.: *bokheter batean* (Duvoisin), *monasterio batean* (Axular)), baina leku geografikoak ere barne edukitzaileetatik franko hurbil diren espazio-puskez/zatiez hornituak ager daitezke (adib.: *herri huntan edo auzoan* (Laphitz), *parkeren batean* (Mirande)). Barne desberdinez gain,[35] inesiboak entitate kokatua koka dezake postposizioek edo BLIek izendatzen dituzten espazio-pusketan (inklusio hutsezko erabilera horiek zinezko edukitzearen hedapenak direla pentsatzekoa da): *mañateren gainean* (Duvoisin), *itsas hegian* (Laphitz). Inesiboaren bigarren erabilera nagusia **eusteko** konfigurazioei dagokie. Hiru euste-egoera bereiztekoak dira, entitate kokatu eta kokatzaileak ardatz bertikalean dituzten posizioen arabera: lehenbizikoa (kokatua) bigarrena (kokatzailea) baino gorago aurki daiteke (sup1 motako konfigurazioak; adib.: *eskalera haren lehen pausuan edo maillean (zegoela konde bat)* (Axular), *kadiran (exeri zen)* (Mirande)); bi entitateak ber mailan daitezke (sup 2; adib.: *(ezpata eta puñala) gerrian* (Laphitz); *(kartela) abisu-taulan/paretan*); lehenbizikoa bigarrena baino beherago izan daiteke (sup 3; adib.: *(maripulisa) kakoan*, *(lanpara/eulia) selauruan edo sabaian*). Inesiboaren zuzeneko erabilerak hiru euste-egoerak deskriba ditzake eta sup 2-3 kasuetan, gainera, markagailu egoki bakar gisa dager askotan konfigurazioaren aipatzeko (*gain* postposizioa baztertzen baita euskalki gehienetan). Azkenik, **«errutina sozialak»** (Vandeloise 1988) izenda ditzake inesiboak, zeinetan entitate kokatuak entitate kokatzaileak iradokitzen duen jardueran edo errutinan parte hartzen baitu: *itsuek ere tornuan edo arrodan (…hari behar zuten)* (Axular), *Theresa idaz-maian (exerita zegoen)* (Mirande), *Antton pianoan (jotzen ari)*, *oilaskoa labean (erretzen ari).*

---

[33] Egoera mugiezkorrei interesatu arren, **mugimendu edo ibildura bati erreferentzia egiten duen aditz** bat barnean hartzen zuten adibideak **ere** arakatu genituen, inesiboaren interpretazioa ez zuela aditz horrek edo perpausaren beste elementu batek posible egiten segurtatuz aldi oroz. Beste molde batez erranik, azaldu dugun lokalizazio mugiezkorreko joskera soilean interpretagarria izan behar zen inesiboa.

[34] Idazle-izenik gabe agertzen direnak jarraian.

[35] «Ingerada» 'outline' motako barneak, «ahokadura» 'embeddings' motakoak… Ikus Aurnague (1999, 2004) xehetasun gehiagorentzat.

Ikustatu genituen lau obretan ez zen, zerrendaturiko hiru konfigurazioez gain, inesiboaren beste neholako espazio-interpretaziorik atzeman, eta aski argiki agertu zen zenbait egoera mugiezkor inesiboaren zuzeneko erabilerak ezin zitzakeela deskriba. Horrelaxe gertatzen da «infratibitatezko» eta hurbiltasunezko egoeretan (hots, entitate kokatua kokatzailea baino beherago denean euste-erlaziorik gabe, edo kokatua kokatzailetik hurbil dagoenean), esaldiak postposizio edo BLI bat gehitzea galdegiten baitu espazio-konfigurazioa behar bezala azaltzeko: *Giltza tapizaren azpian da* (??**Giltza tapizean da*, giltza tapizaren pean dela); *Aulkia paretaren ondoan/kontra da* (??**Aulkia paretan da*, aulkia paretatik hurbil dela). Datuetatik abiatuz, agerian ezarririko hiru espazio-erlazioek «interpretazio-taula» bat osatzen zutela proposatu genuen, hiztunaren edo hizketakidearen urratsak nolabait gidatuko zituena inesiboaren **zuzeneko** erabilera ekoitzi/sortu edo ulertzeko bidean. Entitate kokatzaile eta kokatuaren hainbat tasun kontuan hartzen dituzte hiztunak zein solaskideak –tasun geometrikoak, funtzionalak… (Aurnague et al. 1997)– eta sen oneko fisikaren ('naive physics') printzipioetara jotzen ere, interpretazio-taulak zedarritzen dituen erlazioetatik bat edo beste nabarmentzen denez ikusteko. Egiaztatze-prozesu horrek interpretazio nagusi bat argitan jarriz gero, inesiboa «zuzenean» erants dakioke entitate kokatzailearen izenari (edo izen-sintagmari). Beste zenbait kasutan, aldiz –interpretazio bat eraikitzea zaila edo berdin ezinezkoa bada, lortzen den/diren interpretazioa(k) adierazi nahi denarekin bat etortzen ez bad(ir)a, anbiguotasuna gertatzen bada–, markagailu gehigarriak beharrezkoak bilakatzen dira interpretazio egokiaren erdiesteko, postposizio edo Barne Lokalizazio Izenen tartekatzeak paper berezi bat beteko duelarik sortuko diren joskeretan.[36]

Azterketaren ondorio nagusi gisa, inesiboaren eduki semantikoak (espazio mugiezkorraren alorrean, bederen) disjuntzio baten forma hartzen duela defendatu genuen, zeinek x eta y entitate kokatu eta kokatzailearen artean adieraz daitezkeen espazio-erlazioak zehazten baititu: Inc(x,y) ∨ Sup(x,y) ∨ Rout(x,y).[37] Inesiboak beste motatako konfiguraziorik ez denotatzeaz bestalde (ikus gorago), zenbait arrazoi garrantzitsuk eraman gintuzten erlazio posibleen **banaka** identifikatzera: hiru espazio-erlazioen arteko kontzeptu amankomun (eraginkor) baten falta; konfigurazio bakoitzak entitate kokatuari jartzen dizkion baldintza desberdinak –baldintza horiek gero eta zorrotzagoak izanik inklusio/edukitzetik errutinetara, eustetik iraganez–; inklusiozko konfigurazioen hedapena edukitzetik eratortzea beste bi erlazioetatik baino…

Horrek guztiak espazio-markagailuen funtzionamenduaz zer diosku, hizkuntz erlatibitate berriztatuaren sailean egin diren hainbat analisi eta esperimenturekin alderatuz, bereziki? Bowermanen metodo eta urratsei jarraikiz gero –ikus 2. irudiko konfigurazioei buruzko haren oharrak eta Choirekin batera eginiko esperimentuak (4. atala)–, euskal hiztunek ez lukete inklusio/edukitze, euste eta errutinen artean neholako desberdinketarik eginen (mintzaira mailan): hiru konfigurazio motekin markagailu

[36] Hau ere corpuseko datuen bidez egiaztatu genuen, inesiboaren zuzeneko erabilerak arazoak sortzen dituen egoeretan (ikus gorago) idazleek zer-nolako perpausak eratzen zituzten xeheki arakatuz.

[37] Disjuntzioaren hautua arrazoitzearekin batera, erlazio hirukotea mintzaira-ahalmenaren arkitekturan (Jackendoff 1997; ikus 3. atala) non koka zitekeen eztabaidatu genuen, bi aterabide nagusitan arreta jarriz. Aterabide batek, 'Syntatic Structure'aren (SS) eta 'Conceptual Structure'aren (CS) arteko interfazean jartzen zuen disjuntzioa eta, hortaz, hizkuntza beraren sistemari ematen zion garrantzia. Besteak, Loc(x,y) gisako espazio-erlazio orokor bat aurreikusten zuen interfaze hartan, pragmatikari eta, oro har, gogamenari zegokielarik inesiboak adierazten dituen hiru konfigurazioetara mugatzeko lana. Lehenbiziko aterabidea hobetsi genuen… eta hobesten jarraikitzen dugu.

bakar baten bidez eta **kontzeptu bakar baten bidez** lihardukete. Jarraian ikusiko den bezala, oso errotua da Bowermanen lanetan espazio-markagailuen eta kontzeptuen berdintzeko joera hau (hots, «markagailu bat = kontzeptu bat»), azaleko formei nolabait fidatuz. Bestelako ikuspegi bat eskaintzen digu oraintxe laburbilduriko azterketa semantikoak, inesiboaren interpretazioak «kalkulu» nola jakintza konplexuak erabiltzen dituela iradokitzen baitu, kanpoko bakuntasun formaletik at. Hortaz, hiru konfigurazioen desberdintzera bultzatuak dira hiztunak (beren kalkuluetan), baita konfigurazio bakoitzaren eremuan ere jakintza eta kontzeptu multzo berezi baten erabiltzera (ikus, beherago, eustearen azpian daitekeen sen oneko teoria).

Hausnarketa hauek erlatibitatearen eta unibertsalismoaren arteko eztabaidarentzat berebiziko garrantzia duen puntu batera garamatzate. Gumperz eta Levinsoni utz diezaiegun hitza:

> Bi doktrinek erabat aurkakoak diruditen arren, interpretazio egokietara joz haatik, *guztiz bateragarriak* dira, [hau da] irudikapen/errepresentazio semantikoen maila atomikoen eta molekularren arteko desberdintasuna onartuz gero. Beraz, maila atomikoan, irudikapen semantikoak, eta haiei dagozkien irudikapen kontzeptualak, gogamenaren lengoaia unibertsal batetik eratorriak dira, maila molekularrean hizkuntza bakoitzarentzat berariazkoak diren primitibo atomiko unibertsalez eraturiko konbinazioak daudelarik, adiera lexikala osatzen dutenak (baita desberdintasun morfosintaktikoekin doazenak ere) eta ondorio kontzeptual bereziak ukan ditzaketenak.[38] (Gumperz & Levinson 1996: 25)

Ikuspegi teorikoen arteko balizko artikulazio hau aipatu ondoan, beren dudak agertzen dituzte Gumperz eta Levinsonek eta ez dute bide hartatik segitzen. Unibertsalistek aspalditik proposaturiko adieraren deskonposaketak eta haiek sorturiko arazoak lirateke duda horien erroan. Zehatzago azaltzen ditu Bowermanek deskonposaketa semantikoei eta ustezko primitiboei zuzendu nahi dizkien kritikak:

> Egileek haien primitiboak edozein hizkuntzetako hitzen adierekin parekatzea bilatzen ez dutela azpimarra badezakete ere, ez dago argi *benetan* zer adiera saiatzen zaizkien ematen. Hizkuntza bakoitzak primitibo hautagai bat zer izan daitekeelako ideia desberdina eskaintzen du, eta ikuspegi hau ediren behar du haurrak. Begira diezaiogun, adibidez, *eusteari*. Primitibo hautagai honek behar ote du norabide guztietako eustea barnean hartu, ingelesez bezala? […] Edo azpi(tika)ko eusteari mugatua da, ingelesaren *support* hitzaren baliokide hurbilena den alemanezko *stützen*en moduan? […] Ingelesaren *on*, eusten duen gainazalaren orientazioaz askea da, alemanezko *auf* 'on' azpi(tika)ko eustearen adieraztera mugatua delarik gehienetan.[39] (Bowerman 1996a: 425)

---

[38] «Despite the fact that the doctrines appear diametrically opposed, they are nevertheless, on suitable interpretations, *entirely compatible*, as long as one subscribes to the distinction between atomic and molecular levels of semantic representation. Then, on an atomic level, semantic representations, and their corresponding conceptual representations, are drawn from a universal language of thought, while on the molecular level there are language-specific combinations of universal atomic primitives, which make up lexical meanings (and meanings associated with morpho-syntactic distinctions) and which may have specific conceptual effects».

[39] «Although authors may insist that they do not intend their primitives to be identical with the meanings of words in any actual language, it is not clear what they *do* in fact intend them to mean. Each language offers a different idea of what some candidate primitive is, and the child must discover this view. Consider, for example, *support*. Does this candidate primitive include support from all directions, as in

Agerikoa da, pasarte honetan, Bowermanek (hizkuntz erlatibitate berriztatu edo moldatuaren jarraitzaile askoren gisan) hizkuntza-markagailuen edukiaz duen ikusmoldea, markagailu bakoitzari kontzeptu semantiko bakarra esleitzen baitio. Esplizituki azaldua ez izanagatik, kontzeptu hau bere orokortasunean hartu behar dela dirudi, askotan ezin deskonposa daitekeelarik. Alta, oso bestelako ikuspegia eskaintzen dute espazio-adposizioen adieraz semantika formalean eta jakintzaren errepresentazioan (Adimen Artifizialean) eginak izan diren lanek. Har dezagun, bada, Bowermanen solasean aipatuak diren euste-markagailuen adibidea. Vandeloiseren (1986) analisiei jarraikiz, frantsesaren *sur* preposizioak adierazten duen euste motak (hots, «norabide guztietako» eusteak) bizpahiru nozio garrantzitsu azpian dituela erakustera eman daiteke, hala nola grabitatearen aurkako jarduna (estabilizazioa), kontaktua eta ardatz bertikalarekiko posizioa. Entitate kokatu eta kokatzaileak ardatz bertikalean definitzen dituzten posizioen arabera, bertikalarekiko hiru kontaktu mota bereiz daitezke (ikus gorago sup1-3 konfigurazioak). D1 definizioak, adibidez, kokatua kokatzailea baino gorago den kontaktu-egoera islatuko du. Era berean, zenbait axioma eta definiziok estabilizazioaren funtzionamenduaren berri emanen dute: estabilizazio-erlazioaren trantsitibitatea (A1), berez (auto)estabilizatua ez den entitate batek beste entitate batetik jaso behar duen egonkortasuna (kontaktuaren bitartez; A2), parte(-oso) eta estabilizazio-erlazioen arteko harremanak (A3), osoko estabilizazioa (entitate kokatzaile batenganik; D2). Definizio eta axioma horiek (beste batzuekin batera: ikus Aurnague et al. 1997: 93-94) sen oneko eustearen «teoria» txiki bat osatzen dute, *sur* preposizioaren espazio-erabilerak definitzea ahalbidetzen duena (D3-5) –entitateen bertikalarekiko posizioak desberdinduz bereziki–. **Sen oneko teoria beraren tresnek** balio lezakete azpi(tika)ko eustea soilik denotatzen duten adposizioen adiera xedatzeko (alemanaren *auf* bezalakoak) eta, oro har, hizkuntzetan baliatzen diren beste motatako euste markagailuen edukia ereduztatzeko.[40]

D1 $\text{Cont1}(x,y) \equiv_{def} \text{Cont}(x,y) \wedge \exists z1,z2\ (\text{Zonecont}(z1,x,y) \wedge \text{Zonecont}(z2,y,x) \wedge \text{Plus\_haut}(z1,z2))$

A1 $(\text{Stabilise}(x,y) \wedge \text{Stabilise}(y,z)) \rightarrow \text{Stabilise}(x,z)$

A2 $\neg\text{Stabilisateur\_Intrinseque}(x) \rightarrow \exists y\ (\neg(y=x) \wedge \text{Stabilise}(y,x) \wedge \text{Cont}(\text{sref}(y),\text{sref}(x)))$

A3 $(\text{Part}(z,y) \wedge \neg\text{Part}(x,y) \wedge \text{Stabilise}(z,x)) \rightarrow \text{Stabilise}\ (y,x)$

D2 $\text{Stab\_tot}(y,x) \equiv_{def} \text{Stabilise}(y,x) \wedge \forall z\ ((\text{Cont}(\text{sref}(z),\text{sref}(x)) \wedge \text{Stabilise}(z,x) \wedge \neg\text{O}(\text{sref}(z),\text{sref}(y))) \rightarrow \text{Stab\_tot}(y,z))$

D3 $\text{Sur1}(x,y) \equiv_{def} \text{Catcomp1}(x,y) \wedge \text{Cont1}(\text{sref}(x),\text{sref}(y)) \wedge \text{Stabilise}(y,x)$

D4 $\text{Sur2}(x,y) \equiv_{def} \text{Catcomp2}(x,y) \wedge \text{Cont2}(\text{sref}(x),\text{sref}(y)) \wedge \text{Stab\_tot}(y,x)$

D5 $\text{Sur3}(x,y) \equiv_{def} \text{Catcomp3}(x,y) \wedge \text{Cont3}(\text{sref}(x),\text{sref}(y)) \wedge \text{Stab\_tot}(y,x)$

English? […] Or is it restricted to support from below, like the closest equivalent to the English word *support* in German, *stützen*? […] English *on* is indifferent to the orientation of the supporting surface, whereas German *auf* 'on' is largely restricted to support from below».

[40] Horien artean, nederlanderaren *op* eta *aan* preposizioak (ikus 4. atala eta 22. oharra). Bertikalean gertatzen diren kontaktu desberdinak, autoestabilizazioa eta hiru mailatako espazio linguistikoaren esparru teorikoak eskainiriko beste zenbait tresna (kontaktu moten sailkapena, besteak beste: kontaktu ahula, hertsia, bitarteko kontaktua…; ikus Aurnague et al. 1997) erabil daitezke, hain segur ere, *op* eta *aan*en semantika ereduztatzean.

Antzeko oharrak egin ditzakegu 4. atalean aipatuak izan diren orientazio/norabidezko markagailuez. Aldi honetan ere, hainbat oinarrizko elementu agerian ezar daitezke hizkuntzek erabiltzen dituzten orientazio/norabide-sistema desberdinen gibelean (sistema intrintsekoa, erlatiboa, absolutua…): entitate kokatua, entitate kokatzailea, ikuspuntua, mugarri geografikoak (ingurumenekoak), norabideak eta haien bidez eraturiko koordenatu-sistemak, angeluen neurketa (erlatiboa), orientazio/norabide-sistemek zedarritzen dituzten guneak, entitate bati loturiko norabide funtzionalak (intrintsekoak), norabide- eta koordenatu-sistemen transferitzea eta hari doazkion eragiketak… (Aurnague 1995; 2004: 32-42; Vandeloise, 1986). Zeharka bada ere, ez du besterik erraten Levinsonek (1996: 138-147) «erreferentzia-marko» desberdinak egitura ditzaketen elementu «primitiboen» zerrenda edo multzoa osatzen duelarik –orientazio/norabide-sistemei buruz daraman hizkuntzarteko azterketaren karietan: «Primitibo horien konbinazioek sistema-familia zabal bat dakarte […]»[41] (Levinson 1996: 138)–. Oinarri kontzeptual beretik abiatuz orientazio/norabide-sistema nahiko desberdinetara hel gaitezke, beraz, hizkuntza bakoitzean, baliokideak ez direnak.[42] Ez luke horrek nehor harritu behar, irudikapen edo errepresentazioen maila «molekularrean» gaudela onartzen bada behintzat (ikus gorago).

Argi da, engoitik, irudikapen semantikoen deskonposaketa arbuiatzen duten jarrerek –semantika lexikalaren alorrean partikulazki–, ikuspegi aski hertsia dutela hizkuntz markagailuen adieraz (Bowerman) edo/eta deskonposaketaren gaia ez dutela artoski barnatzen (Gumperz eta Levinson). Ez da ustekabe bat haien kritikak adieraren irudikatzeko sistema nahiko sinple eta mugatuei zuzentzen badizkiete (Jackendoffen (1983, 1990) eta Levin & Rappaport Hovaven (1995) semantika kontzeptuala eta egitura kontzeptualen gisakoei bereziki). Alorren arteko ikuskatze askoz sakonagoak mereziko lituzke adiera lexikalaren gaiak, hizkuntzalaritza deskribatzaile zorrotz baten zein semantika formalaren tresnak erabiliko lituzkeena, besteak beste. Adieraren «etiketatze» bakunetik at doan errepresentazio formal batek (predikatuen logikan oinarritua, adibidez) emaitza anitzez aberatsagoak eta interesgarriagoak eman litzakeela erakusten entseatu gara aurreko lerroetan.

Errandakoari jarraikiz, hizkuntz erlatibitatea eta unibertsalismoa bateragarriak bilakatuko lituzkeen irudikapen semantiko **mailakatuen** hipotesia (ikus gorago Gumperz eta Levinsonen iruzkina) guztiz irekia eta errealista dela iduritzen zaigu. Hurbiltze horrek ez lioke indarrik kenduko hizkuntz erlatibitateak aurreikusiriko hainbat ondoriori. Horrela, ez da dudarik maila «molekularrean» –oinarrizko adiera elementu eta teorien bidez– osatzen diren kontzeptu konplexuak **arras desberdinak** izan daitezkeela hizkuntza batetik bestera. Baliteke ere hizkuntzetan moldatu eta errotu diren kontzeptu horiek kognizioaren (mintzairaz kanpoko) **beste modalitate** batzuetan eragitea, Lucyk eta Levinsonek iradoki bezala. Urrunago joanez oraindik, zergatik ez pentsa hizkuntza bateko kontzeptu konplexuek (maila molekularrekoek) azpian dituzten elementu eta teoria oinarrizkoagoen **jabekuntzan** eta moldakuntzan parte har dezaketela (maila

[41] «Combinations of these primitives yield a large family of systems […]».

[42] Puntu honetan bat etortzen gara Levinsonekin, hiru orientazio/norabide-sistema nagusiek ez baitituzte egoera bateko espazio-tasun berak kodetzen. Konfigurazio bat entitate kokatzailearen norabide intrintsekoen arabera deskribatuko duen markagailu edo esaldi batek ez du, adibidez, neholako informaziorik jasoko (gehienetan) entitate kokatuak testuinguruko beste zenbait elementurekin (kanpoko ikuspuntu batekin, mugarri geografiko batekin…) izan ditzakeen norabide/orientazio-harremanez. Hortaz, orientazio/norabide-sistemak ez dira ez baliokideak ez itzulgarriak ('translatable').

atomikoan), kognizio eta gogamenaren beste modalitate zenbaitzuen osagarri bezala.[43] Azkenean, defendatzen dugun adieraren ikuspegiak kontzeptu bakoitzari hizkuntzan ematen zaion **paper eta estatusaren** arabera gehiago begiratzera bultzatzen du: kontzeptu batek markagailu baten adieran nola jarduten ote du (bakarrik edo beste adiera elementu batzuekin)?; delako markagailua lexikala ala gramatikala ote da? Alde horretatik, hizkuntz erlatibitateari ohargarritasunaren ('saliency') irizpidearekin ere hurbil gakizkioke.

6. Perspektiba zabalduz

Bilduma honen osatzeko, eta xehetasunetan sartu gabe, interesgarriak zaizkigun beste hiru ikerketa-ildo aipatu nahi genituzke, mintzaira eta gogamenaren arteko harremanen gaian sakontzen dutenak edo ikuspuntua mintzairatik kulturara zabaltzen dutenak.

Lucy eta Levinsonen azterketa aitzindariei jarraikiz (ikus 4. atala), gero eta ugariagoak izan dira mintzairak kognizioaren beste modalitate batzuetan izan ditzakeen eraginak neurtuz joan diren esperimentuak. Sail horretan guztiz azpimarratzekoak dira Talmyk (1985, 2000) mugimenduaren adierazpenaz proposaturiko hizkuntza-tipologia ikuskatu duten lanak (ikus 4. atala eta Aurnague 2016). «Sateliteek egituraturiko» hizkuntzek ibilduraren moldea edo manera (perpaus bakunean) askoz usuago eta zehatzago deskribatzen duten heinean, ba ote du horrek ondoriorik gogamenaren beste zenbait jardueratan? Eta, alderantziz, «aditzek egituraturiko» hizkuntzek ibilduraren «joanbidean» zentratzeak zer-nolako eragin du hizketa beraren izaeratik at? Horrelako galderak argitu nahiz, espazio-deskribapenen ekoizpenarekin batera sortzen diren jarduerak arakatzen dituzten eragiketak edo atazak asmatu dira, jarduera horiek adierazitakoaren parte izan daitezen (**gorputz-keinuak**) ala ez (**begien mugimenduak**). Ikerketa ardatz horren adibide dira frantses-hiztunen datuak beste zenbait hizkuntzetako emaitzekin (grekoa, ingelesa, txekiera…) alderatzen dituzten esperimentuak (adib.: Fibigerova et al. 2012; Soroli 2012).

Hizkuntz erlatibitatearen sorburuetara itzuliz (ikus 2. atala), Pascal Boyer antropologo kognitiboak 1990eko hamarkadatik goiti erlijiozko ontologien inguruan ondu duen hurbiltzeaz hitz bat erran nahi genuke, egin ditugun hausnarketekin zerikusia duelakoan (Boyer 1996). Irudikapen kontzeptualak berdintasun vs desberdintasunen arabera egituratzen dituzten analisiak zorrotz kritikatzen ditu Boyerrek, eta ordezko ikusmolde bat ere garatzen du: unibertsalak (zein goiztiarrak) liratekeen **sen oneko teoria** txikiak generabilzke, kontzeptu kulturalen eratzea eta jabekuntza esleituko lituzketenak. Erlijioen eta sinesmenen saila barnatzen du ikertzaile honek, eta hainbat arlotan ditugun (sen oneko) jakintzek –bizidun vs bizigabeez, intentzioen osaketaz, ekintzez, kausalitateaz…– erlijiozko ontologien sortzen eta transmititzen nola laguntzen gaituzten ematen du erakustera. Bi gauza nabarmentzen ditu oroz gainetik: sen oneko ontologien/printzipioen urraketak uste baino askoz urriagoak direla; erlijiozko nozioen bereganatzeko beharrezkoak diren jakintzak deskribapen antropologikoek iradoki baino anitzez zabalagoak direla. Bestalde, sen oneko teoriek izaera unibertsala baldin badute, haien bidez eraikitzen diren ekoizpen kulturalak desberdinak izan daitezke –lehenengoek finkatzen duten hein bateraino–.

[43] Mintzaira mundura iristeko eta munduarekin elkarreragiteko lehen planoko tresna den heinean.

Kulturen arteko aldeen ulermenaz dihardute, baita ere, Philippe d'Iribarne soziologo ezagunak azken mende laurdenean bultzatu dituen azterketek. Salerosketen munduari eta lantegien kudeaketari interesatu dira d'Iribarne eta bere ikerketa-taldeko kideak, herri batetik besterako kultura-aldeek portaeretan/jokabideetan –eta, hortaz, kudeaketan– izan dezaketen eragina argitan jarriz ('intercultural management' delakoaren barnean). Oso ezagunak dira (bereziki) d'Iribarnek Frantzia eta Ameriketako Estatu Batuen artean egin dituen konparazioak, eta haien ulertzeko eratu dituen kontzeptu eta oposizioak. Haatik, (d'Iribarne 2008)n du marko teoriko landuena eta osatuena proposatu: herri eta kultura orok gogo-errepresentazio garrantzitsu bat lekarke bere baitan, portaera anitzen azpian litzatekeena; ez soilik salerosketen alorrean, baizik eta beste motatako jardueretan ere bai. **«Erreferentzia-eszena»** deitzen dio d'Iribarnek irudikapen inkontziente horri, bi atalez egina delarik: «arrisku-eszena» ('scène de péril') eta «salbamen-eszena» ('scène de salut'). Gizateria osoak ber oinarrizko esperientziak (beldurrak, kezkak, jarrerak…) ezagutuko lituzke eta kultura bakoitza errepertorio unibertsal honetan elikatuko litzateke bere erreferentzia-eszenaren eraikitzeko unean –esperientzia bat edo esperientzia-konbinazio bat nabarmenduz (d'Iribarne 2008: 115-119)–. Beraz, bi mailatakoa dugu hurbiltze hau ere, unibertsalismoa eta erlatibitatea/erlatibismoa marko teoriko berean lotzen dituela.

Erreferentziak

AARSLEFF, Hans (1974), «The tradition of Condillac: the problem of the origin of language in the eighteenth century and the debate in the Berlin Academy before Herder». In Dell H. Hymes (arg.), *Studies in the history of linguistics: traditions and paradigms*. Bloomington: Indiana University Press, 93-156.

AARSLEFF, Hans (1982), *From Locke to Saussure. Essays on the study of language and intellectual history*. Minneapolis: University of Minnesota Press.

AARSLEFF, Hans (1988), «Introduction». In Wilhelm von Humboldt, *On language: the diversity of human language-structure and its influence on the mental development of mankind,* Peter Heath (itzul.). Cambridge: Cambridge University Press, vii-lxvi.

ÁLVAREZ ENPARANTZA, José Luis «Txillardegi» (1967/1979), «Idioma y forma de pensar». *Zutik* (Caracas), zenbaki berezia. Berrargitalpena (1979): In Hordago (arg.), *Documentos Y* (7. liburukia). Donostia: Lur, 385-401.

ÁLVAREZ ENPARANTZA, José Luis L. «Txillardegi» (1972), *Hizkuntza eta pentsakera*. Bilbo: Ediciones Mensajero.

ANTELL, Sue E.G. & CARON, Albert J. (1985), «Neonatal perception of spatial relationships». *Infant Behaviour and Development* 8: 15-23.

ARNAULD, Antoine & LANCELOT, Claude (1660), *Grammaire générale et raisonnée contenant les fondements de l'art de parler...* Paris: Pierre le Petit. Sarean: https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k50416g [Euskarazko bertsioa (2018): *Gramatika orokorra eta arrazoitua* [hainbat zati], Jesus Mari Larrazabal (itzul.). *Gogoa* 17: 119-130.]

ARNAULD, Antoine & NICOLE, Pierre (1662), *La logique ou l'art de penser : contenant, outre les règles communes, plusieurs observations nouvelles propres à former le*

jugement. Paris: Jean Delaunay, Jean Guignard & Charles Savreux. Sarean: https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k133688c

AURNAGUE, Michel (1995), «Orientation in French spatial expressions: formal representations and inferences». *Journal of Semantics* 12 (3): 239-267.

AURNAGUE, Michel (1999), «Cas inessif du basque du basque et connaissance du monde : l'expression de l'espace a-t-elle horreur du vide (sémantique) ?». In Marc Plénat, Michel Aurnague, Anne Condamines, Jean-Pierre Maurel, Christian Molinier & Claude Muller (arg.), *L'emprise du sens : structures linguistiques et interprétations, Mélanges offerts à Andrée Borillo*. Amsterdam: Rodopi, 19-44.

AURNAGUE, Michel (2004), *Les structures de l'espace linguistique : regards croisés sur quelques constructions spatiales du basque et du français*. Lovaina: Peeters.

AURNAGUE, Mixel (2016), «Mugimenduzko joskera batzuen oinarri semantikoez: frantsesaren adibidea». *Gogoa* 14: 27-43.

AURNAGUE, Michel, VIEU, Laure & BORILLO, Andrée (1997), «La représentation formelle des concepts spatiaux dans la langue». In Michel Denis (arg.), *Langage et cognition spatiale*. Paris: Masson, 69-102.

BERLIN, Brent & KAY, Paul (1969), *Basic color terms: their universality and evolution*. Berkeley/Los Angeles: University of California Press.

BOAS, Franz (1911/1966), «Introduction to the handbook of American Indian languages». In Franz Boas & John W. Powell, *Introduction to the handbook of American Indian Languages & Indian linguistic families of America North of Mexico*, Preston Holder (arg.). Lincoln/Londres: University of Nebraska Press, 1-81.

BOWERMAN, Melissa (1996a), «Learning how to structure space for language: a crosslinguistic perspective». In Paul Bloom, Mary A. Peterson, Lynn Nadel & Merrill F. Garrett (arg.), *Language and space*. Cambridge, MA: MIT Press, 385-433.

BOWERMAN, Melissa (1996b), «The origin of children's spatial semantic categories: cognitive versus linguistic determinants». In John J. Gumperz & Stephen C. Levinson (arg.), *Rethinking linguistic relativity*. Cambridge: Cambridge University Press, 145-176.

BOWERMAN, Melissa & CHOI, Soonja (1994), «Linguistic and nonlinguistic determinants of spatial semantic developement». *Boston University Conference on Language Development* konferentzian aurkezturiko lana.

BOYER, Pascal (1996), «Cognitive limits to conceptual relativity: the limiting-case of religious ontologies». In John J. Gumperz & Stephen C. Levinson (arg.), *Rethinking linguistic relativity*. Cambridge: Cambridge University Press, 203-221.

BROWN, Penelope & LEVINSON, Stephen C. (1993a), ««Uphill» and «dowhill» in Tzeltal». *Journal of Linguistic Anthropology* 3 (1): 46-74.

BROWN, Penelope & LEVINSON, Stephen C. (1993b), «Explorations in Mayan cognition». *Working paper* 24. Nimega: Max Planck Institute for Psycholinguistics, Cognitive Anthropology Research Group.

CHOI, Soonja & BOWERMAN, Melissa (1991), «Learning to express motion events in English and Korean: the influence of language-specific lexicalization patterns». *Cognition* 41: 83-121.

CONDILLAC, Etienne Bonnot de (1746), *Essai sur l'origine des connaissances humaines*. Amsterdam: Pierre Mortier. Sarean: https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b8626251z

DURANTI, Alessandro (1997), *Linguistic anthropology*. Cambridge: Cambridge University Press.

FIBIGEROVA, Katerina, GUIDETTI, Michèle & ŠULOVÁ, Lenka (2012), «Verbal and gestural expression of motion in French and Czech». In Luna Filipović & Kasia M. Jaszczolt (arg.), *Space and time across languages and cultures II: Language, culture and cognition*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 251-268.

FODOR, Jerry A. (1975), *The language of thought*. Cambridge, MA: Harvard University Press.

FODOR, Jerry A. (1983), *The modularity of mind*. Cambridge, MA: MIT Press.

GOPNIK, Alison (1980), «The development of non-nominal expressions in 12-24-month-old children». Doktoretza-tesia, Oxford University.

GOPNIK, Alison & MELTZOFF, Andrew N. (1986), «Words, plans, things, and locations: interactions between semantic and cognitive development in the one-word stage». In Stan A. Kuczaj ll & Martin D. Barrett (arg.), *The development of word meaning: progress in cognitive development research*. New York/Berlin: Springer Verlag, 199-223.

GRINEVALD, Colette (2007), «The linguistic categorization of spatial entities: classifiers and other nominal classification systems». In Michel Aurnague, Maya Hickmann & Laure Vieu (arg.), *The categorization of spatial entities in language and cognition*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 93-121.

GUMPERZ, John J. & LEVINSON, Stephen C. (arg.) (1996), *Rethinking linguistic relativity*. Cambridge: Cambridge University Press.

HAVILAND, John B. (1993), «Anchoring and iconicity in Guugu Yimithirr pointing gestures». *Journal of Linguistic Anthropology* 3 (1): 3-45.

HESPOS, Susan J. & SPELKE, Elizabeth S. (2007), «Precursors of spatial language: the case of containment». In Michel Aurnague, Maya Hickmann & Laure Vieu (arg.), *The categorization of spatial entities in language and cognition*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 233-245.

VON HUMBOLDT, Wilhelm (1836/1988), *On language: the diversity of human language-structure and its influence on the mental development of mankind*, Peter Heath (itzul.). Cambridge: Cambridge University Press.

D'IRIBARNE, Phlippe (2008), *Penser la diversité du monde*. Paris: Seuil.

JACKENDOFF, Ray (1983), *Semantic and cognition*. Cambridge, MA: MIT Press.

JACKENDOFF, Ray (1990), *Semantic structures*. Cambridge, MA: MIT Press.

JACKENDOFF, Ray (1997), *The architecture of the language faculty*. Cambridge, MA: MIT Press.

JOHNSTON, Judith R. (1985), «Cognitive prerequisites: the evidence from children learning English». In Dan I. Slobin (arg.), *The crosslinguistic study of language acquisition* (2. liburukia). Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum, 961-1004.

KAY, Paul & MCDANIEL, Chad K. (1978), «The linguistic significance of the meanings of basic color terms». *Language* 54 (3): 610-646.

KELLY, Louis G. (1979), *The true interpreter: a history of translation theory and practice in the West*. Oxford: Basil Blackwell.

LANGACKER, Ronald (1987), *Foundations of cognitive grammar* (1. liburukia: Theoretical prerequisites). Stanford, CA: Stanford University Press.

LANGACKER, Ronald (1991), *Foundations of cognitive grammar* (2. liburukia: Descriptive application). Stanford, CA: Stanford University Press.

LARRAZABAL, Jesus Mari (arg.) (2006). *Elbira Zipitria gogoan. Piageten argitan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

LÉCUYER, Roger (2001). «Rien n'est jamais acquis. Ou de la permanence de l'objet… de polémiques». *Enfance* 2001/1 (53): 35-65.

LEE, Penny (1991), «Whorf's Hopi tensors: subtle articulators in the language thought nexus». *Cognitive Linguistics* 2 (2): 101-123.

LEVIN, Beth & PINKER, Steven (arg.) (1992), *Lexical & conceptual semantics*. Oxford: Blackwell.

LEVIN, Beth & RAPPAPORT HOVAV, Malka (1995), *Unaccusativity: at the syntax-lexical semantics interface*. Cambridge, MA: MIT Press.

LEVINSON, Stephen C. (1992), «Language and cognition: the cognitive consequences of spatial description in Guugu Yimithirr». *Working paper* 13. Nimega: Max Planck Institute for Psycholinguistics, Cognitive Anthropology Research Group.

LEVINSON, Stephen C. (1996), «Frames of reference and Molyneux's questions». In Paul Bloom, Mary A. Peterson, Lynn Nadel & Merritt F. Garrett (arg.), *Language and space*. Cambridge, MA: MIT Press, 109-169.

LOCKE, John (1689), *An essay concerning human understanding*. Londres: Thomas Basset.

LUCY, John (1992a), *Language diversity and thought: a reformulation of the linguistic relativity hypothesis*. Cambridge: Cambridge University Press.

LUCY, John (1992b), *Grammatical categories and cognition: a case study of the linguistic relativity hypothesis*. Cambridge: Cambridge University Press.

MALOTKI, Ekkehart (1983), *Hopi time: a linguistic analysis of the temporal concepts in the Hopi language*. Berlin: Mouton Publishers.

MARTIN, Laura (1986), «Eskimo words for snow: a case study in the genesis and decay of an anthropological example». *American Anthropologist* 88: 418-423.

MCDANIEL, Chad K. (1974), *Universals in color terms semantics and their neuropsychological sources*. Eskuizkribua.

NEEDHAM, Amy & BAILLARGEON, Renée (1993), «Intuitions about support in 4.5-month-old infants». *Cognition* 47: 121-148.

PIAGET, Jean & INHELDER, Barbel (1948), *La représentation de l'espace chez l'enfant*. Paris: PUF.

PIÉRART, Bernadette (1979), «Genèse et structuration des marqueurs de relations spatiales entre trois et dix ans». *Cahiers de l'Institut de Linguistique de Louvain* 5 (1-2): 41-59.

PINKER, Steven (1989), *Learnability and cognition: the acquisition of argument structure*. Cambridge, MA: MIT Press.

QUINN, Paul C. (1994), «The categorization of above and below spatial relations by young infants». *Child Development* 65: 58-69.

SAPIR, Edward (1929), «The status of linguistics as a science». *Language* 5, 207-214.

SOROLI, Efstathia (2012), «Variation in spatial language and cognition: exploring visuo-spatial thinking and speaking cross-linguistically». *Cognitive Processing* 13 (1): 333-337.

SPELKE, Elizabeth S. (1984), «Perception of unity, persistance and identity: thoughts on infant's conceptions of objects». In Jacques Mehler & Robin Fox (arg.), *Neonate cognition: beyond the blooming, buzzing confusion*. Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum, 86-114.

STRERI, Arlette & SPELKE, Elizabeth S. (1988), «Haptic perception of objects in infancy». *Cognitive Psychology* 20: 1-23.

TALMY, Leonard (1985), «Lexicalization patterns: semantic structure in lexical forms». In T. Shopen (arg.), *Language typology and syntactic description* (3. liburukia): *grammatical categories and the lexicon*. Cambridge: Cambridge University Press, 57-143.

TALMY, Leonard (2000), *Toward a cognitive semantics* (1. & 2. liburukiak). Cambridge, MA: MIT Press.

VANDELOISE, Claude (1986), *L'espace en français : sémantique des prépositions spatiales*. Paris: Seuil.

VANDELOISE, Claude (1988), «Les usages spatiaux statiques de la preposition *à*». *Cahiers de Lexicologie* 53: 119-148.

VANDELOISE, Claude (2002), «Relativité linguistique et cognition». *Carnets de Grammaire* 9. Tolosa Okzitania: CLLE-ERSS txostena. [(Vandeloise 2003)n berrargitaratua «Diversité linguistique et cognition» izenburupean]

VANDELOISE, Claude (arg.) (2003), *Langues et cognition*. Paris: Hermes.

VIEU, Laure (1991), *Sémantique des relations spatiales et inférences spatio-temporelles : une contribution à l'étude des structures formelles de l'espace en langage naturel*. Doktoretza-tesia, Université Paul Sabatier, Tolosa Okzitania.

WHORF, Benjamin Lee (1940a), «Science and linguistics». *Technol. Rev.* 42: 229-231, 247-248.

WHORF, Benjamin Lee (1940b), «Linguistics as an exact science». *Technol. Rev.* 43: 61-63, 80-83.

WHORF, Benjamin Lee (1956), *Language, thought and reality: selected writings of Benjamin Lee Whorf*, John B. Carroll (arg.). Cambridge, MA: MIT Press.

WIERZBICKA, Anna (1996), *Semantics: primes and universals*. Oxford: Oxford University Press.

Corpusa

AXULAR, Pedro (1643/1995), *Gero* (bertsio elektronikoa). Bilbo: Paideia.

DUVOISIN, Jean-Pierre (1858/1996), *Laborantzako liburua* (bertsio elektronikoa). Bilbo: Paideia.

LAPHITZ, Frantzisko (1867/1995), *Bi saindu heskualdunen bizia* (bertsio elektronikoa). Bilbo: Paideia.

MIRANDE, Jon (1970/1995), *Haur besoetakoa* (bertsio elektronikoa). Bilbo: Paideia.

ROUGEUR DES MATINAUX

(René Char, *Les Matinaux*, 1947-1949)

II

Quand on a mission d'éveiller, on commence par faire sa toilette dans la rivière. Le premier enchantement comme le premier saisissement sont pour soi.

III

Impose ta chance, serre ton bonheur et va vers ton risque. À te regarder, *ils* s'habitueront.

V

La sagesse est de ne pas s'agglomérer, mais, dans la création et dans la nature communes, de trouver notre nombre, notre réciprocité, nos différences, notre passage, notre vérité, et ce peu de désespoir qui en est l'aiguillon et le mouvant brouillard.

GOIZTARREN GORRIDURA

(M.A.k euskaratua)

II

Iratzartzea betebehar duena, bere burua errekan araztuz has daiteke. Lehen lilura lehen zirrara, bere.

III

Bortxa zure mentura, besarka zure zoriona eta zure lanjergana joan. Behakoz behako *dira* ohituko.

V

Zuhurtziak ez du elkar hurtzera manatzen, baina, elkarrekilako sortze eta izaeran, gure kopurua, gure aldebikotasunak ta aldeak, gure igarobidea, gure egia aurkitzera bultzatzen; baita haren akuilu ta lanbro aldakor den etsipen amiñia kausitzen.